



**AIARAKO UDALAK 2019ko AZAROAREN 21ean EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**PRESIDENTEA**

Gentza Alamillo Udaeta jauna

**ZINEGOTZIAK**

Montse Angulo Solloa andrea  
Iñigo Pinedo Vadillo jauna  
Susana Martín Benavides andrea  
José Antonio Bartolomé Pesquera jauna  
Itxaso Gorbeña Allende andrea  
Unai Campo Arenaza jauna  
Karmele Población Martínez andrea  
José Antonio Gorbea Alonso jauna  
Marian Mendiguren Mendibil andrea  
Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemeretzi azaroaren 21ean 19:05ean Udala ohiko osoko bilkuran bildu zen, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunaren zuzendaritzapean eta aipatutako zinegotzien presentziarekin, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluari jarraikiz. M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas izan zen saioko idazkaria.

**IDAZKARIA**

M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas andrea

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta, besterik aipatu gabe, eguneko **AZTERGAIEN ZERRENDAKO** gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira.

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2019ko urriaren 15eko ohiko osoko bilkurako akta eta 2019ko urriaren 25eko ezohiko presazko osoko bilkurako akta.**- Jarraian, Udalbatzari aurreko akten berri eman zaie, 2019ko urriaren 15eko ohiko osoko bilkurari eta 2019ko urriaren 25eko ezohiko presazko osoko bilkurari dagozkionak.

2019ko urriaren 15eko ohiko bilkurako aktari dagokionez, Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du 19. orrialdean honako hau jasotzen dela: “*José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-Bildu) esan du berari buruz ari bada, Udaleko zinegotzia eta Lantenoko Administrazio Batzarreko kidea dela...*”. Lantenoko Administrazio Batzarreko beharrez, Erretes Lantenoko Administrazio Batzarreko esan beharko luke.

Esku-hartzeak amaitu ondoren, aho batez adostu da aipatutako akta onestea.

2019ko urriaren 25eko ezohiko presazko osoko bilkurako akta onesteko bozkatu egin da, eta EAJ-PNV eta AIARA BATUZ taldeen kideen aldeko botoekin onetsi da. EH-BILDU udal-taldea abstenitu da, bilkura horretan egonez zelako.



**2.- Nafarroako Erdialdeko uholdeei erantzuna emateko erabaki-proposamena.**  
Jarraian, Udalbatzari 2019ko azaroaren 14ko alkatetza-erabaki proposamenaren berri eman zaio. Honela dio:

**“NAFARROAKO ERDIALDEKO UHOLDEEI ERANTZUNA EMATEKO ERABAKI-PROPOSAMENA**

**IKUSI DA UHOLDEAK 2019 LAGUNTZA TALDEA- RIADAS 2019 GRUPO DE AYUDA** taldeak egindako idazkia, zeinetan 2019ko uztailaren 8ko euri-zaparradek Nafarroako Erdialdeko hainbat lekutan izandako ondorioak jasotzen diren. Udalbatzari eskatzen diote horren gaineko erabaki bat har dezan.

**IKUSI DA** 2019 urterako udal-aurrekontuan ez dagoela aurrekontu-gordailurik dirulaguntzarik emateko, hondamendiak eragindako lekuetan azpiegiturak eta zerbitzuak berriz jar daitezzen.

Udalbatzaren osoko bilkurak honako **ERABAKI** hau hartzea proposatzen da:

**LEHENENGOA.-** Adieraztea elkartasuna Nafarroako Erdialdeko pertsona eta herri kaltetu guztiei, batez ere, Zeru Cañada gaztearen familiari.

**BIGARRENA.-** Udalak auzolan solidarioan parte hartzera animatzen ditu herritarrak, udal kaltetuek horretarako ireki dituzten banku-kontuetan egokia deritzoten ekarpena eginez.

**HIRUGARRENA.-** Biztanleei erabaki honen edukiaren berri ematea, bere esku dauden baliabideak erabiliz.

Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin. Gentza Alamillo Udaeta”.

Gizarte Osasuna, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adinekoak Informazio Batzordeak, 2019ko azaroaren 19ko saioan, Udalbatzaren osoko bilkurak erabaki hori hartzearen aldeko txostena egin zuen.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du beste kasu batzuetan kreditu gehigarria erabili dela, nahiz eta ez egon, eta berdina egin zezaketela kasu honetan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du proposamena Batzordean zehaztu moduan geratuko dela, dagoeneko aurkeztu zituzten arrazoiengatik.

Esku-hartzeak amaitu ondoren, aho batez adostu da goian aipatutako erabaki-proposamena idatzi moduan onestea.

**3.- Aiarako Udalak Euskal Fondoari 2019 ekitaldian ekarpena egiteko proposamena.**  
Jarraian, Udalbatzari 2019ko azaroaren 14ko alkatetza-erabakiaren proposamenaren berri eman zaio. Hau jasotzen da:



## **“ERABAKI-PROPOSAMENA**

**IKUSI DA.-** Aiarako Udaleko gobernu-taldeak proposatzen duela **5.063,55 €**-ko dirulaguntza ematea 2019 ekitaldirako, 231.481003 aurrekontu-aplikazioa, **EUSKAL FONDOA** erakundearekin lanean jarraitzeko egiten dituen proiektuetan, emandako agirien arabera.

**AINTZAT HARTU DA.-** Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) artikuluan honako hau esaten dela zuzenean eman daitezkeen dirulaguntzei buruz: “c) *Salbuespen moduan, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen badira, edo deialdi publikoa zailtzen duten beste batzuk, behar bezala justifikatzen badira*”.

Beraz, proposamen hau salbuespenezkoa denez, ohiko prozeduraren lehiaren aurrean, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak justifikatzeko txosten bat behar da.

Kasu honetan, EUSKAL FONDOAREN interes publikoa, soziala eta humanitaria egiaztatzen duen, eta beraz, deialdi publikoa zailtzen duen arrazoiak da Aiarako Udala bera elkarteko kide dela, oso sentsibilizatuta baitago erakundeak egiten duen jardunarekin.

Udalbatzaren osoko bilkurak honako **ERABAKI** hau hartzea proposatzen da:

**Lehenengoa.-** EUSKAL FONDOARI 5.063,55 €-ko dirulaguntza ematea, 231.481003 aurrekontu-aplikazioaren kargura, **“LANKIDETZARAKO ETA GARAPENERAKO DIRULAGUNTZAK”**, honako proiektu hau egiteko:

- Ezgaitasun ezberdinak dituzten pertsonentzako gune publikoen irisgarritasuna hobetzea Somoton. 2/2 Fasea.

**Bigarrena.-** Laguntza hori ematean EUSKAL FONDOAK jakinarazten badigu proiektu hori bukatu duela, Aiarako Udalak proiektu honi laguntzea proposatzen du:

- Laguntza ematea Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan, azpiegitura (formakuntza, ondasun suntsikorak eta ordezkioak) garraiatuz.

**Hirugarrena.-** Dirulaguntza ez da emango jarduera justifikatu arte, **2020ko urtarrilaren 31 baino lehen**, honako egiaztagiria hauek aurkeztuz:

- Udal honek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publikoek nahiz pribatuen eskutik jasotako dirulaguntza guztien zinpeko aitortpena, elkartearen presidentek sinatua.
- Erakundeko idazkariaren ziurtagiria, gobernu-organoak dirulaguntza onartzeko hartutako erabakia egiaztatzen duena.
- Jardueraren memoria, xehatutako programak eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu osoa, eginiko jardueren arabera xehakatuta.
- Diruz lagundutako gastuen faktura originalak edo konpultsatutako kopia. Horien data **2019koa izango da, eta, edozein kasutan, 2019ko abenduaren 31 baino aurretikoak izango dira fakturak.**
- Aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren ziurtagiriak.



- Dirulaguntza eman zen xedea bete dela dioen ziurtagiria eta emandako dirulaguntzen baturak jardueraren kostua gainditzen ez dutela dioten egiaztagiria, erakundearen idazkariak igorria.

Dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da, osorik edo partzialki, baldin eta ez bada justifikatzen edo dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako kausaren bat baldin badago.

**Laugarrena.-** Alkate jaunari eskumena ematea dagokion konpromiso-agiria sinatzeko.

**Bosgarrena.-** Erakunde interesdunari jakinaraztea dirulaguntza hau eman zaiola.

Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin. Gentza Alamillo Udaeta”.

Gizarte Osasuna, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adinekoak Informazio Batzordeak, 2019ko azaroaren 19ko saioan, Udalbatzaren osoko bilkurak erabaki hori hartzearen aldeko txostena egin zuen.

Udalbatza jakinaren gainean dago, eta aho batez adostu du, ohiko bozketa egin ostean, goian aipatutako erabaki-proposamena idatzi moduan onestea.

**4.- Alday Ongintzako Fundazioarekin elkarlanean aritzeko lankidetzaren proposamena, Arespalditzako eguneko arretarako landa zentroa (CRAD) 2019an kudeatzeko eta mantentzeko.-** Jarraian, Udalbatzari 2019ko azaroaren 14ko alkatetza-erabakiaren proposamenaren berri eman zaio. Hau jasotzen da:

**“IKUSI DA.-** Alday Ongintzako Fundazioak nagusien arretarako laguntza-funtzioa egiten duela Arespalditzako instalazioetan, eta 2009 urtetik Arespalditzako eguneko arretarako landa zentroaren kudeaketa eta funtzionamendua bere gain hartzen dituela.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalak zerbitzu honi segida emateko interesa.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzaren proposamena, Arespalditzako eguneko arretarako landa zentroa 2019an kudea eta mantentzeko.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmen honek dakartzan gastuei aurre egiteko kreditu nahikoa eta egokia dagoela 2019rako udal-aurrekontuan.

Udalbatzaren osoko bilkurak honako **ERABAKI** hau hartzea proposatzen da:

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzaren proposamena, Arespalditzako eguneko arretarako landa zentroa 2019an kudea eta mantentzeko. Hitzarmenak honako hau jasotzen du:



**“AIARAKO UDALAREN ETA ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ARESPALDITZAKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA 2019an KUDEA ETA MANTEN DEZATEN.**

Arespalditzan, 2019ko XXXXXXX(r)en XX(ea)n.

**BILDU DIRA:**

Alde batetik, *Gentza ALAMILLO UDAETA* jauna, AIARAKO Udaleko (Araba) alkate-presidentea, 2019ko xxxxxx(r)en xx(e)ko ohiko osoko bilkuran hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena.

Bestetik, *José Ramón GONZALEZ MENDIA* jauna, ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOko presidentea, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena.

*M<sup>a</sup> del Carmen ROJO PITALLAS* andrea, AIARAKO Udaleko idazkaria.

Bi aldeek beren karguei dagozkien eskumenak aurkeztu dituzte, eta dokumentu hau sinatzeko eskumena aitortu diote elkarri, eta

**ADIERAZI DUTE**

**Lehenengoa.**- ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAk nagusien arretarako laguntza-funtzioa egiten duela Arespalditzako instalazioetan.

Gainera, 2009 urtetik Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamendua bere gain hartzen ditu.

**Bigarrena.**- Zerbitzua jarraitzeko, hitzarmen hau egin dute, hauei jarraikiz:

**KLASUSULAK**

**Lehenengoa.**- Agiri honen xedea da, alde batetik, Alday Ongintzako Fundazioak Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamenduan bere gain hartzen dituen konpromisoak ezartzea. Guztira 14 toki ditu batera erabiltzeko, eta horietako 10 Arabako Foru Aldundiak itundutakoak dira. Era berean, Udalak ordaindu beharrekoa zehaztea, lan hori Alday Ongintzako Fundazioak betetzeagatik.

**Bigarrena.**- Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du zentroa eta han egiten diren jarduerak kudeatzeko, agiri honi eranskin moduan atxiki zaion gehigarriari jarraikiz. Bertan jasotzen dira preskripzio teknikoak edo zerbitzua emateko araudia eta zentroaren funtzionamendu-baldintzak, baita pertsonak onartzeko protokoloa ere. Halere, indarreko arau-esparruaren barruan egingo da hori, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak adinekoentzako titulartasun publikoko gizarte-zerbitzuak kudeatzeko ezarritako informazio-oinarrien eta helburuen arabera.

**Hirugarrena.**- Alday Ongintzako Fundazioak Eguneko Arretarako Landa Zentroa adinekoentzako aisia-jarduerak egiteko eta eguneroko jarduerak egiten laguntzeko baliatuko du. Era berean, Zentroan obrarik ez egiteko konpromisoa hartzen du, eta instalazioak, ezta haien zati batzuk ere, hitzartutakoaz besteko erabileretarako ez baliatzeko konpromisoa hartzen du, alde aurretik Aiarako Udalak onesten ez badu behintzat.

**Laugarrena.**- Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du, hitzarmenak irauten bitartean, beharrezko langileak jartzeko, artatutako pertsona-kopuruaren, haien



*profilaren eta emandako zerbitzuen arabera, Eguneko Arretarako Landa Zentroak ondo funtzionatzeko eta haren kudeaketa ekonomikoa garatzeko.*

**Bosgarrena.**- *Gizarte Zerbitzuei buruzko Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bere printzipio orokorren barruan, erantzukizun publikokoa jartzen du, eta adierazten du botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzu eta Prestazioen katalogoan araututako prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea eta eskuragarritasuna ziurtatuko dutela. Gainera, zioen azalpenean, baieztatzen du gizarte-zerbitzuek beren jarduna egokitu behar dutela gizon-emakumeen berdintasunerantz apurka aurreratzeko gizarte-aldaketekin lotuta, emakumeak gizarte-inklusiara lagunduko dituzten jarduketak eta zerbitzuak bultzatuz. Bi aldeek adierazten dute ezagutzen dituztela 3/2007 Lege Organikoan (martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa) eta 4/2005 Legean (otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, 2010ean onetsia) ezarritako xedapenak, eta konpromisoa hartzen dutela neurriak hartzeko genero-ikuspegia sartzeko eta, bereziki, hizkuntza ez-sexista erabiltzeko, datuak sexuaren arabera banatuta biltzeko eta aurkezteko eta hitzarmen honen babespean egiten diren jardueretan sartzeko gizon-emakumeen berdintasuneko helburua.*

*Era berean, Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du Aiarako Udalari jakinarazteko programak exekutatzean sortutako edozein aldaketa, baita horretarako izendatutako langileen ingurukoa ere, Alday Ongintzako Fundazioak ematen duen laguntza-zerbitzuari eragiten badio. Alday Ongintzako Fundazioak Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketaren eta funtzionamenduaren inguruan era justifikatuan beharrezko diren agiriak aurkeztuko ditu. Edonola ere, hitzarmen hau edonola aldatzeko, bi aldeek alde aurreko eta berariazko onespina lortu beharko da. Udalak Arabako Foru Aldundiarekin Eguneko Arretarako Zentroaren inguruan sinatutako hitzarmenean aldaketarik balego, Alday Ongintzako Fundazioari jakinaraziko zaio, beharrezko aldaketak egin ditzan, bi aldeek alde aurretik ados jarri ondoren. Zerbitzuak genero-ikuspegia txertatuko du bere programazioan eta jarduketetan, eta, bereziki, hizkuntza ez-sexista erabiliko du, eta emakume eta gizonak duintasun- eta eskubide-berdintasunean aurkeztuko ditu, eta eguneroko jardueretan genero-rolen eta estereotipoen inguruko hausnarketa txertatuko du.*

**Seigarrena.**- *Aiarako Udala ez da izango, inola ere ez, hitzarmen hau gauzatzetik eratorritako edozein motatako lan-betebeharren erantzule. Alday Ongintzako Fundazioaren erantzukizuna izango da enplegatuen lan-harremanari eta lan-antolaketari lotutako guztia, eta, izatekotan, Alday Ongintzako Fundazioarekin lan-loturaren bat dutenena.*

**Zazpigarrena.**- *Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du hasieratik eta hitzarmen honen indarraldian bere zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean izateko, baita Aiarako Udalarekin beste dirulaguntza batzuk itzultzeagatiko zergen ordainketa egunean eramateko ere. Era berean, adierazten du ez dagoela indarreko legerian aurreikusitako ezein debeku-egoeratan.*

**Zortzigarrena.**- *Aiarako Udalak, udaleko lehen mailako gizarte zerbitzuaren bidez, aurkeztutako eskaerak bilduko ditu, eta dagokion administrazio-espeditentia izapidetuko du.*

*Eskaeren balorazioa eta pertsonen lehentasun-ordena zehaztea Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren barruko batzorde baten bidez egingo da, eta hauek hartuko dute parte: zuzendariordea, gizarte-koordinatzailea eta Gizarte Esku-hartze Saileko gizarte-langilea.*

*Pertsonak Gizarte Ongizateko Foru Institutuak aukeratuko ditu, eta lehentasuna emango dio udalerrian bizi diren pertsonak hartzeari. Hau da, ohiz kanpoko inguruabarrik*





ezean, puntuazio berdineko kasuetan, Aiarako udalerrian bizi diren pertsonen emango zaie zentroan sartzeko lehentasuna. Horiek Gizarte Ongizateko Foru Institutuari unean-unean indarrean dagoen prezio publikoen araudi erregulatuarekin bat etorritik ezarritako prezio publikoa ordaindu beharko diote; horretarako, dagokion ebazpena bidaliko da.

**Bederatzigarrena.**- Erabiltzaileak Eguneko Arretarako Landa Zentrora eramateko garraioa ez da hitzarmen honen xedea, Alday fundazioarekin eta Udalarekin zerikusirik ez duen beste erakunde batek kudeatzen baitu zerbitzu hori.

**Hamargarrena.**- Zenbatetsi da hitzarmenaren indarraldirako zentroaren kudeaketari eta funtzionamenduari dagokion gastua 72.000,00 € izango dela, 2019rako udal-aurrekontuan hasieran ezarritako zenbatekoa. Aiarako Udalak 2019rako udal-aurrekontuaren 231.481007 partidaren ordainduko du aipatutako zenbatekoa.

Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du aipatutako aurrekontu-partida behar beste handitzeko Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko gastu handiagoa egin ahal izateko, betiere Alday fundazioak behar bezala justifikatzen badu, zerbitzua egoki emateari eragiten dioten aurreikusi ezin diren inguruabarren ondorioz, eta Aiarako Udalaren gizarte-laguntzailearen onespenerekin.

**Hamaikagarrena.**- 2019ari dagokion kontraprestazioaren ordainketa Alday Ongintzako Fundazioak Udalean gastu guztien ordainagiriak aurkezten dituen egingo da, datu guztiekin eta legez ezarritako betekizun guztiekin (hornitzailearen izena eta IFZ, Alday fundazioaren izena eta IFZ, fakturaren zenbakia eta data, prestazioaren helburua, xehatutako kopurua eta BEZa), eta langileen kostuari dagozkion ziurtagiriak, hilabete bakoitza bukatzean; beraz, ordainketak hileroko egingo dira.

Jarraian zerrendatutako gastuetarako, honako kontzeptu eta/edo kopuru hauek inputatu beharko dira, aurkeztutako justifikazioa baliozkotzat jo dadin:

- **Elikadura-kostua:** Alday fundazioak kudeatutako egoitzan zerbitzuak ematen dituen sukaldariaren soldaten eta gizarte-aseguruen % 20ko kostua inputatuko da, Egoitzako eta Eguneko Arretarako Zentroko zerbitzuetan aritzen diren langileak baitira. Era berean, elikagaien kostua justifikatzeko, 5,62 €-ko kopurua inputatuko da menu bakoitzeko, bai erabiltzaileena, baita zerbitzua ematen duen gerokultorearena ere, hilabetean zerbitzua ematen duen egunetan.

- **Gestoriaren kostua:** Alday fundazioak gestoriaren kontzeptuan duen gastuaren % 15 inputatuko da; izan ere fundazioak ematen duen Egoitza zerbitzuarekin partekatutako gastu bat da.

- **Garbiketa-kostua:** Hileroko, 34,58 € inputatuko da, garbiketa-kontzeptuan; izan ere, Alday fundazioaren beraren bitartekoekin egiten da, eta fundazioak ematen duen egoitza-zerbitzuarekin partekatutako zerbitzua da.



- Erantzukizun zibileko aseguruak: Erabiltzaile kopuruari gehi gerokultoreari dagokion zati proportzionala inputatuko da, Alday fundazioak kudeatzen dituen bi zerbitzuen kopuru osotik (Egoitza + Eguneko Zentroa), bi zerbitzuek partekatzen duten kostua baita.

- Animatzaile soziokulturalaren/ gizarte-langilearen kostua: Hilero 160,00 € inputatuko da, Alday fundazioak kudeatutako egoitzan zerbitzuak ematen dituen animatzaile soziokulturalaren/gizarte-langilearen soldaten eta gizarte-aseguruen % 8,66, irailatik hasita, Egoitzako eta Eguneko Arretarako Zentroko zerbitzuetan aritzen diren langileak baitira.

- Zuzendariaren agirien kudeaketaren kostua: Hilero 355,00 € inputatuko da, Alday fundazioak kudeatutako egoitzan zerbitzuak ematen dituen zuzendariaren soldatak eta gizarte-asegurua ordaintzeko, zerbitzu hori fundazioak emateko ardura hartu, Egoitzako eta Eguneko Arretarako Zentroko zerbitzuetan aritzen den langilea baita.

- Usufruktua: AFaren balioespenaren arabera (210.650,92 €-ren % 2; urtean 4.213,02 €, eta hilean 351,09 €); horietatik 3.370,42 € Aldundiak ordainduko ditu, eta Udalak 842,60 €.

Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (Aiarako Udaleko Gizarte Langileak) Alday Ongintzako Fundazioak aurkeztutako agiriaren aldeko txostena igorri ondoren.

Txostena ez bada aldekoa, uste delako ez direla nahikoa justifikatu egindako ordainketa guztiak, gizarte-langileak adierazi beharko du idatzi beharreko txostenaren barruan zein kontzeptuk behar duten Alday Ongintzako Fundazioak egiaztatzea, partida zehatz horretan.

**Hamabigarrena.**- Hitzarmenaren indarraldia amaitzean, eta luzapen bakoitzean, edonola ere 2020ko urtarrilaren 10a baino lehen, Alday Ongintzako Fundazioak hau aurkeztu beharko du:

- Egindako ekintzen azalpen-memoria, egindako jarduerak, lortutako emaitzak eta haien ebaluazioa adieraziz, espezifikoki jasota emakume eta gizonen berdintasunerako egindako ekintzak, eta sexuka banatutako datuak aurkeztuz. Jasotakoan, Aiarako Udaleko gizarte-langileak berrikusi egingo du, eta hurrengo ekitaldirako jarraibideak ezarriko ditu.

- Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, gastuen eta diru-sarreraren zerrenda xehatuarekin.

- Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako dirulaguntza guztien adierazpena, bai erakunde pribatu eta bai publikoetatik jasotakoak. Inprimakia atxiki da, betetzeko.

- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketetan egunean egotearen ziurtagiria, edo elkartearen presidenteak sinatutako baimena, Udalak erakunde horiei eska diezazkien aipatutako ziurtagiri horiek.

- Zentroko langileen soldata-kostuei dagokien agiriak (gerokultorea, sukaldaria, zuzendaria eta animatzailea/gizarte-langilea): TC-1 eta TC-2ren kopia, dagokion ekitaldian langileei ordaindutako nominen kopia.





**Hamahirugarrena.** - Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Aiarako Udalak zentroa erabili ahal izango dute jarduerak egiteko, aldez aurretik Alday Ongintzako Fundazioari jakinarazten badiote. Hauek ezingo diote uko egin, eskatutako erabilera instalazioetan egiten duten lanarekin bateragarria ez bada behintzat, bai Eguneko Arretarako Landa Zentroan eta bai alboko Zaharren Egoitzan.

**Hamalauugarrena.** - Alday Ongintzako Fundazioaren erantzukizun izango dira hitzarmen hau gauzatzearen betebeharrak betetzetik zuzenean edo zeharka eratorritako gorabeherak, edozein motatakoak direla ere, betiere bere kudeaketari edo funtzionamenduari egozteko moduko jarduerengatik bada. Inola ere ez da erantzungo ezinbesteko kasuetan, ustekabekoetan edo hirugarrenek egindakoetan; horretarako, ez ditu bere gain hartuko egunero pertsonak garraiatzean sor daitezkeen kalteak, horretarako dagoen garraioan, beste erakunde batek kudeatzen baitu zerbitzua.

Gorabehera horietako edozein ardurua saihesteko, Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa eta betebeharra du aseguru-poliza bat sinatzeko eta ordaintzeko, hitzarmena gauzatzeetik erator daitezkeen balizko erantzukizunak betetzeko; horretarako, hitzarmen hau sinatzerako, eta balizko luzapenetarako, aipatutako poliza eta dagokion ordainagiria ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.

**Hamabosgarrena.** - Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta ondoreak izango ditu 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte. Aurrekoa gorabehera, eta zerbitzuak jarraitzeko aurreikuspenaren arabera, hitzarmena luzatu egingo da bukatzean, beharrezkoa izango balitz, ez dagoelako ebazpenik zerbitzua 2019rako ematearen inguruan, eta aipatutako erabakia hartu arte behar besteko denboran.

**Hamaseigarrena.** - Bi aldeek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren xedapenak, eta konpromisoa hartzen dute hor aurreikusitako eskakizunak betetzeko, hitzarmen honetan tratatzen diren erabiltzaileengandik lortutako datuei dagokienez. Araudi horrek Alday Ongintzako Fundazioa, hitzarmen honen sinatzailea, eta Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren edo Aiarako Udalaren ardurapeko fitxategietako izaera pertsonaleko datuak tratatzen dituen bere langile guztiak behartzen ditu beharrezko segurtasun-neurriak aplikatzera datuek, une oro, beharrezko segurtasun-maila izan dezaten. Arau horiek betetzea, hitzarmenaren xedearen esparruari dagokionez, Alday Ongintzako Fundazioaren ardurua izango da.

Bereziki, honako betebeharrak hauek bete beharko ditu, aipatutako arauaren 12. artikuluari eta 15/1999 Lege Organikoa Garatzeko Araudiaren 20. artikuluari jarraikiz.

1. Ez aplikatzea dituen datu pertsonalak, eta ez ditu erabiltzea kontratu honen xedea osatzen duen programa emateko ez beste ezertarako.
2. Ez zaizkie datu horiek jakinaraziko, ezta kontserbatzeko bada ere, beste pertsona batzuei, fisikoei edo juridikoei, indarreko legeriak aurreikusitako kasuetan izan ezik.
3. Alday ongintzako elkartearen enplegatuek, Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren edo Aiarako Udalaren titulartasuneko fitxategietan jasotako izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen badute, haiek sekretupean izateko eta



*gordetzeko betebeharra dute, eta betebeharrorik iraun egingo dute, Alday Ongintzako Fundazioarekin daukaten harreman juridikoa bukatzen denean ere bai.*

4. *Segurtasun-agiri bat egingo du, edo daukana osatuko du, fitxategia edo tratamendua identifikatu beharko da, eta haren arduraduna, eta tratamendu horrekin lotutako segurtasun-neurriak sartu beharko ditu.*

*Datuetarako sarbidea urrutikoa bada, Aiarako Udalak berariaz debekatzen dio Alday Ongintzako Fundazioari datu horiek arduradunarenak ez diren beste sistema edo euskarri batzuetan sartzea. Alday Ongintzako Fundazioak bere zerbitzura dauden langileei, kontratatutako zerbitzua gauzatzearen ardura dutenei, Gizarte Ongizateko Foru Institutuko segurtasun-araudia onartzearen konpromisoa sinaraziko die.*

5. *Beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzazkoak hartu beharko ditu izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatzeko, eta haien aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe eskuratzea eragozteko, kontuan hartuta teknologiaren egoera, biltegiatutako datuen izaera eta zein arrisku dituzten, giza ekintzatik edo bitarteko fisiko edo naturaletik etorrira ere. Bereziki, erakundeak abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren VIII. tituluan aurreikusitako neurriak bete beharko ditu (haren bidez onestean da 15/1999 Lege Organikoaren Garapen Araudia, aurrez aipatua), baita unean-unean gai horren inguruan indarrean dauden xedapenak ere.*

*Neurri horiek aipatutako Garapen Araudian ezarritako segurtasun-neurrien arabera zehaztuko dira. Kontuan hartu beharko da erabiltzaileen osasun-datuak tratatzeak babesneurri handiagoak eskatzen dituela, eta gutxienez, araudi horretan jasotakoak aplikatu beharko dira.*

6. *Hitzaurre honen xede den prestazioa betetzean, erabiltzaileen datuak itzuli beharko dizkio Alday Ongintzako Fundazioak Aiarako Udalari, gehienez ere hogeita hamar egun naturaleko epean, eta inola ere ezingo du gorde fitxategi horien kopia osoa edo zatikakoa, edo horien ondorioz sortutakoak, agindutako lanen ondoriozkoak, edo tratatu den izaera pertsonaleko datuen bat daukan agiri edo euskarririk, indarreko legeriak xedatutakoaren arabera erakunde pribatuak gorde behar dituenak kenduta.*

7. *Horretarako, kontuan hartu beharko da segurtasun-neurriak berdin eta bereziki aplikatu beharko direla automatizatu gabeko euskarrietan dauden datuetan.*

8. *Alday Ongintzako Fundazioak, tratamenduaz arduratzen denak, izaera pertsonaleko datuak bestelako helburuetarako erabiltzen baditu, komunikatu egiten baditu edo kontratuaren estipulazioak hautsiz erabiltzen baditu, pertsonalki egin dituen arau-hausteei erantzunez joko da tratamenduaren erantzulezat.*

9. *Alday Ongintzako Fundazioak agindutako zerbitzuak azpikontratatzeko badira, edo azpikontratatzea aurreikusten bada, Aiarako Udalaren alde aurreko jakinarazpena beharko du, osorik edo partzialki Hitzaurre honen xede diren zerbitzuak azpikontratatzeko. Edonola ere, Alday Ongintzako Fundazioaren eta azpikontratatzailearen artean egindako kontratuan hau islatu beharko da: datuak babesteko araudiak eskatutako betekizuna, eta berariaz jaso beharko dira aipatutako 12. artikuluko preskripzioak, azpikontratutako*



zerbitzuaren eduki zehatza eta izaera pertsonaleko datuen tratamendua unean-unean Gizarte Ongizateko Foru Institutuak eta Aiarako Udalak ezarriko dituen argibideei doituko zaiela.

10. Aldeek beren eskubideak eskatuko balituzte Aiarako Udalean, arduradunak eskaera helarazi beharko dio fitxategiaren arduradunari, hark ebatz dezan.

11. Gizarte Ongizateko Foru institutuak eta Aiarako Udalak Alday Ongintzako Fundazioak egindako datu pertsonalen tratamenduak ikuskatu ahal izango ditu, gutxienez bi urteko maiztasunarekin, izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategiak tratatu eta kontserbatzeari dagokionez.

12. Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du, honen bidez, fitxategiak edo egin beharreko tratamenduak izaera pertsonaleko datuak babesteko legeriari egokitzeko.

**Hamazazpigarrena.**- Hitzarmen hau baliogabetzeko kausa izango da bi aldeek adostea, funtsezko klausulak ez betetzea, hau da, Alday fundazioak gizarte-laguntza ez ematea edo gaizki ematea, edo Udalak ordaindu beharreko kopuruak bost hilabete baino gehiagoz ez ordaintzea.

**Hemezortzigarrena.**- Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede den programen publizitatean Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren eta Aiarako Udalaren elkarlana aintzat hartzeko. Aiarako Udalak zentroko arreta-zerbitzua iragartzen duenean, halaber, Alday Ongintzako Fundazioak egiten duen laguntza-lana adieraziko du, eta Arabako Foru Aldundiari eskatuko dio hark ere kontuan har dezala Aiararako egiten duen jarduera honen publizitatean.

Komunikazio-, publizitate- eta propaganda-ekintza guztiak, Hitzarmen honekin lotura badute, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren alde aurreko jakinarazpena beharko dute, eta bere irudi korporatiboarekin lotuta haiek ezarritako adierazpenei lotuko zaizkie; horrez gain, gizonen eta emakumeen hizkera inklusiboa erabili beharko dute, eta sexua gorabehera pertsonak giza duintasunean berdinak direla erakusten duten irudiak. Era berean, edozein ekitaldi publiko edo pribatu antolatzean (datak, ordutegiak, ekitaldiaren garapena, gonbidatuak, eta abar), aurkezpenak, sari-banaketak, itxierak eta antzekoak, deitu aurretik adostuko dira, eta Aiarako Udalaren eta Aldundiaren onospena eduki beharko dute. Edonola ere, ekitaldi horietako presidentetza eta presentzia Hitzarmen honen sinatzaileentzat gordeta dago, baita Arabako Foru Aldundiarentzat ere, eta AFAREN Protokolo eta Harreman Publikoen zerbitzuak arautuko du.

Azaldutako guztiarekin ados gaudela adierazteko, honako agiri honen bi kopia sinatzen ditugu, goiburuan adierazitako tokian eta egunean”.

**Bigarrena.**- Alkate jaunari eskumena ematea hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena.**- Alday Ongintzako Fundazioa erabakiaren jakinaren gainean jartzea, hitzarmena sina dezaten.

Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin. Gentza Alamillo Udaeta”



Gizarte Osasuna, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adinekoak Informazio Batzordeak, 2019ko azaroaren 19ko saioan, Udalbatzaren osoko bilkurak erabaki hori hartzearen aldeko txostena egin zuen.

Miren Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du, puntu horri dagokionez, gustatuko litzaiokeela jakitea zein den zentroko langileek duten Hitzarmen Kolektiboa, eta, horrela, haien lan-eskubideak errespetatzen ari diren ikusi ahalko da, aintzat hartuta zentro hauetan azkenaldian egon diren arazoak.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio Alday Ongintzako Fundazioak, hileko gastuen justifikazioan, Eguneko Arretarako Landa Zentroko langileen nominak eta gizarte-aseguruak sartzen ditu. Udalbatzako kideek agiri horiek ikus ditzakete.

Udalbatza jakinaren gainean dago, eta aho batez adostu du, ohiko bozketa egin ostean, goian aipatutako erabaki-proposamena idatzi moduan onestea.

**5.- “Gelditu geltokian- Para en la parada” programa aurrera eramateko borondate-erabakia.-** Jarraian, Udalbatzari 2019ko azaroaren 14ko alkatetza-erabakiaren proposamenaren berri eman zaio. Hau jasotzen da:

### **“ERABAKI-PROPOSAMENA**

**IKUSI DA.-** Amurrioko Udalaren eta Laudioko Udalaren adikzioen prebentzioko zerbitzu-sailek “*Gelditu geltokian – Para en la parada*” kanpaina eta bere edukia sortu dituztela. Kanpainaren helburua biztanle guztiak jai-eremuan alkoholaren kontsumo ezegokiari buruz sentsibilizatzea da, trenbidea komunikabide gisa erabiliz.

Aipatutako kanpaina Urduña-Bilbo tren-ibilbidean hasi da RENFErekin elkarlanean, eta ibilbide hori pasatzen den udalerrri guztiak barne hartu nahi ditu. Horrez gain, kanpaina beste eremuetara hedatzeko aukera dago, betiere erabaki honen espiritua mantentzen bada.

**IKUSI DA.-** Horretarako helarazi zaigun borondate-erabakiaren eredia.

Aipatutako guztia eta Aiarako Udalak programa horretan duen interesa aintzat hartuta, Udalbatzaren Osoko Bilkurak honako **ERABAKI** hau hartzea proposatzen da:

**Lehenengoa.-** Sinatzea borondate-erabakia “**GELDITU GELTOKIAN- PARA EN LA PARADA**” programa aurrera eramateko, atxikitako testuaren arabera.

**Bigarrena.-** Alkate jaunari eskumena ematea dagokion konpromiso-agiria sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Erabakiaren berri ematea Amurrioko eta Laudioko Udalei, kanpaina sortu duten erakundeei, alegia.

Arespalditzan.- **ALKATEA.-**Sin. Gentza Alamillo Udaeta”

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) hitza hartu du, eta adierazi du ez duela oso argi zein den erabaki honen xedea, alkoholaren kontsumoa edo mugikortasuna.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du biak direla kanpainaren xedea: sentsibilizatzea bai alkoholaren eta beste drogen gainean, baita garraio publikoaren erabileraren gainean ere. Azpimarratu du Amurrioko eta Laudioko Udaletako Adikzioen Prebentzioen Zerbitzu-Sailetako teknikariek egindako lana dela, eta triptiko batzuk egingo dituztela. Amaitzeko esan du informazio gehiagorik behar izanez gero, bi udal horiei eskatzeko eta ondoren partekatzeko.

Gizarte Osasuna, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adinekoak Informazio Batzordeak, 2019ko azaroaren 19ko saioan, Udalbatzaren Osoko bilkurak erabaki hori hartzearen aldeko txostena egin zuen.

Udalbatza jakinaren gainean dago, eta aho batez adostu du, ohiko bozketa egin ostean, goian aipatutako erabaki-proposamena idatzi moduan onestea.

**6.- Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-jardueretara doazen adingabeengatik familiei laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza aldatzeko osoko bilkurako erabaki-proposamena.** Jarraian, 2019ko azaroaren 14ko erabaki-proposamenaren berri eman zaio Udalbatzari, Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-jardueretara doazen adingabeengatik familiei laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza aldatzeari buruzkoa. Honela dio:

### **“OSOKO BILKURAKO ERABAKI-PROPOSAMENA**

***IKUSI DA.-** Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-jardueretara doazen adingabeengatik familiei laguntzak ematea arautzen duen Aiararen Udaleko Ordenantza aldatzeko beharra, Udalbatzak ikusitakoa.*

*Aurrekoa ikusita, Udalbatzaren Osoko bilkurak honako **ERABAKI** hau hartzea proposatzen da:*

***Lehenengoa.-** Onestea Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara adin gutxikoak joateagatiko familientzako laguntzei buruzko Aiararen Udaleko Dirulaguntzak arautzeko Ordenantzaren behin-behineko aldaketa:*

- *8. artikulua.- Laguntzen zenbatekoa eta dirulaguntzaren muga.*

*Bigarren paragrafoa ezabatzea proposatzen da, zeinak honako hau esaten duen: “Onuradun adingabe bakoitzarengatik 2.000,00 euroko gehieneko dirulaguntza ezartzen da, hartara eskatzaile bakoitzak bere kargura duen adingabe bakoitzarengatik, hura adingabe den urte guztietan zehar, eskura dezakeen zenbateko metatuak ez du muga hori gaindituko”.*

***Bigarrena.-** Jendaurrean jartzeko 30 egun baliouduneko epea irekitzea, erabakia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal izango ditu bidezkotzat jotzen dituen alegazioak, eta Udalbatzak aztertuko ditu horiek, bidezkoa bada behin betiko onesteko. Hasierako onespeneraren inguruko alegaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onesteko erabakia behin betikotzat jo eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.*





**Hirugarrena.-** Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea, aintzat hartuta ordenantzaren aldaketa hauek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean indarrean sartuko direla.

*Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin. Gentza Alamillo Udaeta”*

Kultura, Kirolak eta Gazteak Informazio Batzordeak, 2019ko azaroaren 19ko saioan, Udalbatzaren Osoko bilkurak erabaki hori hartzearen aldeko txostena egin zuen.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du ordenantza horrek adingabeak soilik aipatzen ditu. Aitzitik, kiroldegiaren ordenantzak familia osoa barne hartzen du, eta hori bera musikari eta dantzari buruzko ordenantzan sartzea posible den jakin nahi du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du gai hau mahai gainean utz daitekeela, hurrengo Batzorde batean eztabaida dezaten.

Udalbatza jakinaren gainean dago eta aho batez adostu da, ohiko bozketaren bidez, gai hau mahai gainean uztea.

**7.- EAEko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide-kuotak ordaintzeko laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza aldatzeko proposamena.** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2019ko azaroaren 14aren erabaki-proposamena, EAEko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide-kuotak ordaintzeko laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza aldatzeari buruzkoa. Honela dio:

### **“OSOKO BILKURAKO ERABAKI-PROPOSAMENA**

***IKUSI DA.-*** EAEko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide-kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza aldatzeko beharra.

Aurrekoa kontuan hartuta, Udalbatzaren Osoko bilkurak honako **ERABAKI** hau hartzea proposatzen da:

***Lehenengoa.-*** Onestea EAEko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide-kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko laguntzak ematea arautzen duen Ordenantzaren honako behin-behineko aldaketa hau:

- 8. artikulua.- Laguntzen zenbatekoa eta dirulaguntzaren muga.

Bigarren paragrafoa ezabatzea proposatzen da, zeinak honako hau esaten duen: “Eskatzaile bakoitzarengatik (banakakoa nahiz familia unitatea, jarduera familia osorako ordaintzen bada) 2.000,00 euroko gehieneko dirulaguntza ezartzen da, hartara eskatzaile bakoitzak (banakakoa nahiz familia unitatea) laguntza eskatzen den urte guztietan zehar, eskura dezakeen zenbateko metatuak ez du muga hori gaindituko.”.



**Bigarrena.**- Jendaurrean jartzeko 30 egun balioduneko epea irekitzea, erabakia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal izango ditu bidezkoztat jotzen dituen alegazioak, eta Udalbatzak aztertuko ditu horiek, bidezkoa bada behin betiko onesteko. Hasierako onespeneraren inguruko alegaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onetsitako erabakia behin betikotzat jo eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

**Hirugarrena.**- Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea, aintzat hartuta ordenantzaren aldaketa hauek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean indarrean sartuko direla.

*Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin. Gentza Alamillo Udaeta”*

Kultura, Kirolak eta Gazteak Informazio Batzordeak, 2019ko azaroaren 19ko saioan, Udalbatzaren osoko bilkurak erabaki hori hartzearen aldeko txostena egin zuen.

Udalbatza jakinaren gainean dago eta aho batez adostu da, ohiko bozketaren bidez, goian aipatutako erabaki-proposamena idatzi moduan onestea

**8.- Aiarako Udalaren eta “Gurasoen Elkarte Babio-Asociación Padres y Madres” elkartearen arteko lankidetz hitzarmenaren erabaki-proposamena, eskolaz kanpoko ekintzen gastuak finantzatzeko 2019-2020 ikasturterako.**- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2019ko azaroaren 14aren erabaki-proposamena, Aiarako Udalaren eta “Gurasoen Elkarte Babio-Asociación Padres y Madres” elkartearen arteko lankidetz hitzarmenari buruzkoa, eskolaz kanpoko ekintzen gastuak finantzatzeko 2019-2020 ikasturterako. Honela dio:

### **“OSOKO BILKURAKO ERABAKI-PROPOSAMENA**

***IKUSI DA.***- Aiarako Udalaren udalerrian ekintza sozio-kulturalak eta kirol-ekintzak babestu eta sustatzeko interes publikoa.

***IKUSI DA.***- Aiarako Udalaren eta “Gurasoen Elkarte Babio-Asociación Padres y Madres” elkartearen arteko lankidetz hitzarmenaren erabaki-proposamena, eskolaz kanpoko ekintzen gastuak finantzatzeko 2019-2020 ikasturterako.

***AINZAT HARTU DA.***- 2019ko udal-aurrekontuaren 326.481032 aplikazioan kreditu nahikoa eta egokia dagoela erabaki honek ekartzen dituen gastuei aurre egiteko.

Aipatutakoak kontuan hartuta, Udalbatzaren Osoko bilkurak honako **ERABAKI** hau hartzea proposatzen da:

**Lehenengoa.**- Onestea Aiarako Udalaren eta “Gurasoen Elkarte Babio-Asociación Padres y Madres” elkartearen arteko lankidetz hitzarmenaren erabaki-proposamena, eskolaz kanpoko ekintzen gastuak finantzatzeko 2019-2020 ikasturterako.



**“AIARAKO UDALAREN ETA GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA (2019)**

Arespalditzan, 2019ko azaroaren (e)(a)n.

**HAUEK BILDU DIRA**

Alde batetik, *GENTZA ALAMILLO UDAETA* jauna, Aiarako Udaleko alkate-presidentea, ekitaldi honen fede ematen duen M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas Aiarako Udaleko idazkariak lagunduta.

Beste aldetik, jn./and., adin nagusikoa, NAN zenbakiaren titularra eta (n) helbideratua, "GURASOEN ELKARTEA BABIO- ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" Elkarteko presidentea.

**ESKU HARTU DUTE**

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-presidentea, toki-erakundeko ordezkaria, gaian gaitua eta trebea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

Bigarrenak, aipaturiko Elkartearen izenean eta bere ordezkartzan, bere nortasunak eta ordezkagarritasunak frogatzen du elkartek berak egindako ziurtagiriaren bitartez, Udalean "GURASOEN ELKARTEA BABIO- ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" elkarteko Presidente aukeratu eta izendatzen duten aktaren kopia bat aurkeztuz (hitzarmen honi 1. dokumentu bezala atxikiko zaio).

Bi aldeek **lankidetzahitzarmen** hau sinatzeko lege-gaitasun nahikoa dutela aitortzen diote elkarri.

**AZALDU DUTE**

**I.-** Aiarako Udalak kirol jarduerak eta jarduera soziokulturalak zaindu eta sustatzeko herritarren interes publikoari erantzunez, hitzarmen honetan zehazten diren lankidetzak eta baliabideak erraztuko dizkio GURASOEN ELKARTEA BABIO- ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES ELKARTEARI, helburuak gauzatu ahal izateko.

**II.-** Udalak interes berezia du eskola ordutegitik kanpoko jardueren mantentze-lanetarako eta sustapenerako.

**III.-** "GURASOEN ELKARTEA BABIO - ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" izeneko elkarreak lan handia egiten du arlo soziokulturalari eta kirolari dagokionean, izan ere udalerrian kultur jarduera eta kirol ekintza ugari eskaintzen ditu, batez ere haurrei eskainita, kirol ekintzak eta artistikoak sustatuz gaztetxoenen artean, hezkuntza zentroko ekintzen osagarri.

**IV.-** "GURASOEN ELKARTEA BABIO - ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" elkarreak beti adierazi du Aiarako udalarekin lan egiteko interesa gaztetxoenei eta beren familiei zuzendutako ekintza soziokultural artistikoak edo bestelako kirol ekintzak antolatzeke.

**V.-** Aiarako Udalak udalerriko txikitxoentzako eta beren familientzako kultur eta kirol ekintzak sustatu ditu, eta horrez gain, hitzarmen honen bidez sustapen hori artikulatzea



lortu du, Zaraobe Institutuan eskolaz kanpoko ekintzen gastuak ordaintzeko dirulaguntza zuzenak arautzen dituelarik. Hauek 2019-2020 urterako hezkuntza-zentroko eskolaz kanpoko ekintzen egutegiaren arabera egingo dira.

**VI.- Aplikazio-legedia zorrotz betez eta toki-erakundeei dagokien Lankidetzaren Hitzarmenetan izen emateko eskumenean erreparatuz, bi aldeek Lankidetzaren Hitzarmena formalizatu dute.**

### **ERABAKIAK**

**LEHENENGOA.-** Hitzarmen honen xedeak, Aiarako Udalak Zaraobe Institutuan eskolaz kanpoko ekintza soziokulturalak, artistikoak eta kirol-ekintzak sustatzea eta familien formakuntza dira, "GURASOEN ELKARTEA BABIO - ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" elkartearen bitartez

**BIGARRENA.-** Aiarako Udalarari dagokion sustapen jarduerak eskolaz kanpoko ekintzek suposatzen duten gastu batzuez (gastuen zati batez) arduratzea eta hauei dirulaguntza ematean datza.

Elkartearen esku geratuko da ekintzen garapenerako beharrezko materiala.

2019-2020 ikasturterako gehienezko dirulaguntza 1.420,00 € izango da.

**HIRUGARRENA.-** Dirulaguntzaren xede den jardueraren epea ikastetxeko egutegi ofizialaren arabera izango da eta 2020ko ekainean amaituko da; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakinaraziko du Arabako Lurralde Ordezkaritzaren bitartez

**LAUGARRENA.-** Dirulaguntza honen ordainketa modua honakoa da: Aiarako Udalak dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatu ondoren. Gainerako % 20a, berriz, behin hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

**BOSGARRENA.-** Udalaren urteko dirulaguntzaren zenbatekoa (gehienez 1.420,00 €) **JUSTIFIKATZEKO** honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

- a) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publiko zein pribatutatik eskuratutako dirulaguntza guztien aitortzea.
- b) Foru-Ogasun eta Gizarte-Segurantzako ordainketak egunean daudela adierazten duen egiaztagiria.
- c) Diruz lagunduko den jarduerari dagokion dokumentazioa:
  - Diruz lagunduko den jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.
  - Diruz lagundutako jardueraren ekintzen memoria (gauzaturiko ekintza bakoitzaren ebaluazio orria eta gauzatu izanaren zinpeko aitortpena).
  - Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (ekintzen gastua + funtzionamendu gastua), bere gastu eta diru-sarrerekin, faktura eta ordainketa agiri bakoitzarekin.

Lehen erabakian adierazitako baldintzak ez betetzekotan ez da dirulaguntzarik emango eta aurrez abonatutako zenbatekoak itzultzeko prozedura bat jarriko da abian.

Hitzarmen honetako bosgarren erabakian adierazitako beharrezko justifikazio hori 2020ko irailaren 30erako ez aurkeztekotan, ez da dirulaguntzarik emango, eta aurrez abonatutako zenbatekoak itzultzeko prozedura bat jarriko da abian.



*Jarduera honetarako emango den dirulaguntza hau ez da bateragarria Udalak urtero deituriko gainerako dirulaguntzekin.*

**SEIGARRENA.-** "GURASOEN ELKARTEA BABIO- ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" Elkarteak Aiarako Udalak laguntza eta babes moduan gauzatutako publizitate oro jaso beharko du.

**ZAZPIGARRENA.-** "GURASOEN ELKARTEA BABIO- ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" elkarteak hitzarmen honetan adierazitako betebeharrak ez betetzekotan, indarrean dagoen dirulaguntzen arautegiko erantzukizun eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

*Adostutakoarekin bat, bi aldeek sinatu dituzte lankidetzaz hitzarmen honen bi aleak, inolako dokumentua osatzen duten 4 folioetan zuzenketa, ezabaketa edo aldaketarik gabe, hitzarmena betetzeko konpromisoa hartuz, dokumentuko goiburuan agertzen den leku eta egunean..."*

**Bigarrena.-** Alkate-presidente jaunari eskumena ematea aipatutako erabakia sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Erabaki honen berri ematea "Asociación Padres y Madres-Gurasoen Elkarte Babio" elkarteari, dagokion hitzarmena sina dezaten.

*Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin. Gentza Alamillo Udaeta."*

Kultura, Kirolak eta Gazteak Informazio Batzordeak, 2019ko azaroaren 19ko saioan, Udaltzaren Osoko bilkurak erabaki hori hartzearen aldeko txostena egin zuen.

Udalbatza jakinaren gainean dago, eta aho batez adostu du, ohiko bozketa egin ostean, goian aipatutako erabaki-proposamena idatzi moduan onestea.

**9.- Udaltzari organo parte-hartzailearen txostenaren berri ematea, aurrekontu-oreka ez betetzearen, diruzaintza-geldikinaren erabileraren eta 6/2019 Kreditu Gehigarriaren inguruan.-** Jarraian, Udaltzari 2019ko azaroaren 14ko alkatetza-proposamenaren berri eman zaio, diruzaintza-geldikin likidoaren bidez finantzatutako Kreditu Gehigarriaren 6. txostenari buruzkoa.

### **"OSOKO BILKURAKO ERABAKI-PROPOSAMENA**

**IKUSI DA.-** Diruzaintza-geldikinaren parte bat gastu orokorrentzako erabiltzeko beharra, 2018 urteko likidazioaren bidez, aipatutako obra kontratatzeko gastuen partida eratzeko, ezin baita 2020rako aurrekontua onetsi arte itxaron.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udaleko kontuhartzaile karguaren eskumenak erabiliz egindako txostena eta Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 28/2013 Foru Arauak diruzaintza-geldikinaren erabileran eragindako aldaketak (7/2014 Foru Arauak aldatutakoak). Txostena eta kreditu-aldaketa udaltzara ekarri dira, horien berri izan dezaten.





**AINTZAT HARTU DA.-** Honako hauetan xedatutakoa: Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Udalbatzaren Osoko bilkurak honako ERABAKI hau hartzea proposatzen da:

**Lehenengoa.-** Onestea jarraian zehazten den kreditu gehigarria:

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENDAPENA</b>	<b>ZENBAT./€</b>
912.100000	ALKATETZA – ORDAINSARIAK	1.058,75 €
230.120000	GIZARTE-LAGUNTZAILEA – ORDAINSARIAK	991,00 €
920.120000	FUNTZIONARIOAK – ORDAINSARIAK	25.349,28 €
920.160001	GIZARTE SEGURANTZA	18.355,08 €
920.160004	ELKARKIDETZA	2.086,42 €
166.226020	MURGAKO POLIGONO INDUSTRIALEKO ISURKETA-KONTROLEKO KANONA	1.346,40 €
231.227041	ADIMEN-URRITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO JANARI-KUDEAKETA	2.300,00 €
241.421001	AIARA PECOKO ESKUALDEA 2019-2020	9.120,69 €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>60.607,62 €</b>

Jarraian zehazten diren baliabideek finantzatzen dute aurreko zenbatekoa guztira, eta, horrela, txostena berdindua dago eta ez dago defizitik.

A. Handitu beharreko diru-sarreraren edo erabiltzeko diruzaintza-geldikinen partidak:

<u>Diru-sarreraren partida</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Zenbat./ €</u>
87001	GASTU OROKORRENTZAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA	60.607,62 €
	GUZTIRA.....	60.607,62 €

Onetsitako kreditu gehigarriak, guztira, eta finantzatutako diru-sarrerak berdinak dira.

**Bigarrena.-** Erabaki hau ALHAOn jartzea, eta jendaurrean jartzeko 15 eguneko epea irekitzea, edozein interesdunek bidezkotzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Alegaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat joko da. Alegaziorik egonez gero, onesten edo ukatzen dituen erabaki berri bat hartu beharko da.

Arespalditzan. - ALKATEA.-Sin. Gentza Alamillo Udaeta”.



Era berean, Udalbatzari kontu-hartzaitzaren txostenaren berri eman zaio, 2019ko azaroaren 14koa, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa. Honela dio:

### **“KONTU-HARTZAITZAREN TXOSTENA**

**GAIA:** Aurrekontu-aldaketa gastu orokorretarako diruzaintza-geldikinaren kontura.

Aiarako Udaleko kontuhartzaitza karguari dagozkion eginkizunak oinarri hartuta, eta Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren arabera, 17/2014 Foru Arauak aldatutakoa, geldikinaren kontura kreditu aldaketa bat onetsi ahal izateko, kontuhartzaitza txosten bat helarazi beharko zaio Udalbatzari, egonkortasunaren helburua bete ez dela egiaztatuz. Txosten hau igorri da, bi eranskin dituen:

- I. eranskina: kreditu desberdinak gaitzeko geldikina erabiltzeko proposamena.
- II. eranskina: kontuhartzaitzaren txostena, gastuak diruzaintza-geldikinarekin finantzatzearen ondoriozko egonkortasuna betetzeko.

### **I ERANSKINA: GELDIKINA ERABILTZeko PROPOSAMENA.**

2018KO LIKIDAZIOAREN GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAIN-TZA-GELDIKINA: **588.263,66 euro.**

**ERABILERA-PROPOSAMENA: 60.607,62 €**

ALKATETZAREN ORDAINSARIAK:	1.058,75 €.
GIZARTE-LAGUNTZAILEAREN ORDAINSARIAK:	991,00 €.
FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK:	25.349,28€.
GIZARTE SEGURANTZA:	18.355,08 €.
ELKARKIDETZA:	2.086,42 €.
ISURKETAK KONTROLATZEKO KANONA	
MURGA INDUSTRIALDEA:	1.346,40 €.
ADIMEN-DESGAITASUNA DUTEN	
PERTSONENTZAKO JANARIEN KUDEAKETA:	2.300,00 €.
AIARA PECOKO ESKUALDEA 2019-2020:	9.120,69 €.

**GUZTIRA: 60.607,62 €**



**II ERANSKINA: IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILETZAREN  
TXOSTENA, EGONKORTASUNAREN EZ BETETZEAREN ONDORIOETARAKO**

**I. TXOSTENAREN OINARRIA**

Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak, aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunarenak, 7.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (17/2014 Foru Arauak emandako idazkuntza), aurrekontu egonkortasunaren zein zor publikoaren helburua edo gastu arauarena bete ezean, ekonomia eta finantza plana formulatu beharko du horiek bete ez dituen administrazioak, aribideko urtean edo hurrengoan helburuak eta gastu araua betetzea ahalbidetuko duena.

Bestalde, foru arau horren 7.3 artikulua ezartzen du aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintza-geldikinen bidez finantzatutako gastuen ondorio bada, ekonomia eta finantza planaren ordeztu hartze zereginak burutzen dituen organoaren txostena aurkeztu beharko zaiola dena delako udalbatzari horren berri emateko, bai eta toki korporazioaren finantza iraunkortasunaren analisia eta ebaluazioa ere, gutxienez honakoak jasoko dituen:

- a) Erakundearen zein haren menpeko erakundearen aurrekontu egonkortasunaren helburuak.
- b) Diru-sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioa, joera bilakaera aintzat harturik, hau da, aldaketa onartzen ez duten politikak, adibidez, dagokion aldirako aurreikusitako neurrien inpaktua.
- c) Diru-sarreraren eta gastuen proiektzioaren oinarri izango diren suposizio nagusiak.
- d) Diruzaintza-geldikinak agortzeko momentuan dagoen aurrekontu eta finantza egoera.
- e) Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina.

Txostena kreditu aldaketaren espedientearen zati izango da.

Udalbatzak egindako bilkuraren akta, kontu hartzeko organoaren txostena eta lagungarri den dokumentazioa Arabako Foru Aldundian toki erakundeekin loturikoetan eskumena duen sailera bidaliko dira, eta berak, 30 eguneko epean beharrezko den informazio osagarria eskatu ahalko du edo neurri osagarriak hartu, zeinen artean ekonomia eta finantza plana lantzeko eskaera egon daitekeen, toki erakundearen finantza iraunkortasunaren berme gisa. Epe hori pasatu bada eta Arabako Foru Aldundiak esanbidezko ebazpena eman ez badu, espedientea izapidetzen jarraitu ahalko da.

**EREMU SUBJEKTIBOA:**

Txosten honen helburua da aztertzea Aiarako Udalaren egonkortasun eza, zeina sortu den aurrekontu aldaketa (txosten hau aldaketaren espedientearen zati da) diruzaintza-geldikinen bidez finantzatzeagatik.



### **HELBURUAK:**

Proposatutako aurrekontu aldaketa diruzaintza-geldikinen bidez finantzatzeak egonkortasun printzipioa urratzen du; dena den, ez-betetze hori ez da egiturazkoa, koiunturala baizik.

Beraz, aurrekontu magnitudeak aztertu behar dira. Hain zuzen ere, txosten honekin helburu hauek egiaztatu nahi dira:

- Aurrezki garbirik badagoen.
- Diruzaintza-geldikinik badagoen.
- Zorpetze bateratuaren maila ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak baino txikiagoa den.
- Aurrekontu egonkortasun bateratuak superabita edo finantzaketa ahalmena agertzen duen (KESen arabera).
- Gastu araua betetzen den.

Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak, Arabako Toki Erakundearen aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunarenak, 7. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik (17/2014 Foru Arauak emandako idazkuntza), hauxe izango da txostenaren egitura:

- 1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: erakundearen **aurrekontu egonkortasunaren helburuak** betetzen diren edo ez aztertuko da.
- 2.- **Gastuen eta diru-sarreraren egoeraren proiektzioak**
- 3.- Inbertsioaren funtzionamenduak **gastu arruntean izango duen eragina.**

## **II. EGUNGO EGOERAREN EKONOMIA ETA FINANTZA DIAGNOSTIKOA: AURREKONTU EGONKORTASUNAREN HELBURUAK.**

Onartutako azken likidazioko datuetatik, honako hauek nabarmenduko ditugu:

<b>MAGNITUDEA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>	<b>BETETZEN DA/EZ DA BETETZEN</b>
<b>Aurrezki garbi doitua</b>	553.209,91 €	POSITIBOA
<b>Diruzaintza-geldikina</b>	588.263,66 €	POSITIBOA
<b>Aurrekontu emaitza</b>	328.072,03 €	POSITIBOA
<b>Zorpetze maila</b>	0	
<b>Aurrekontu egonkortasuna</b>	302.088,60	SUPERAVITA BETETZEA
<b>Gastu araua</b>	- 122.672,80 €	- % 4ko BETETZEA



### III. GASTUEN ETA DIRUSARREREN EGOERAREN PROIEKZIOAK.

Ekonomia eta finantza planeko zifrak aldi honetarako proiektatzea ahalbidetuko diguten aldagaiak eta neurriak zehatz definitzeko, EGOERA hau hartu dugu abiapuntutzat:

- Susperraldi arina sumatzen ari gara eta pentsatzen dugu horrek toki erakundeen jarduera ekonomikoa mantenduko duela, edo apur bat handitu. Ondorioz, tokiko diru-sarrerak areagotu eta zerbitzu publiko gehiago eskainiko dira.
- Gastuei bagagozkie, murrizketekin jarraituko da, bai langile gastuetan bai bestelakoetan. Murrizketa horien atzean daude estatuaren aurrekontu orokorren legeak eta aurrekontu egonkortasuna lortzeko ezarritako murrizketak (gastu araua, gastu muga, egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna).

### MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA.

Hona hemen aurreko bi ekitaldietan aztertutako magnitudeen bilakaera:

HELBURUAK	2017	2018
Aurrekontu egonkortasuna	167.278,99	302.088,60
Iraunkortasuna /Diru-sarrera ez finantzarioak (%)	% 7,14	% 12,64
Gastu araua	81.368,53	<b>-122.672,80</b>
Zorpetzea	<b>0</b>	<b>0</b>
Aurrezki garbi doitua	306.668,44	553.209,91
Aurrezki garbia/diru-sarrera arruntak (%)	% 14,19	% 24,90
DIRUZAINZTA-GELDIKINA	550.133,56	588.263,66

### IV. DIRUZAINZTA-GELDIKINAK AGORTZEKO MOMENTUAN DAGOEN AURREKONTU ETA FINANTZA EGOERA.

#### III-C.1 DIRUZAINZTA-GELDIKINA.

Diruzaintza-geldikin positiboak erakundearen epe laburreko guztizko likidezia metatua islatzen du, une jakin batekoa, erabilgarri dagoena etorkizun hurbilean gastuak finantzatzeko.

#### **Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin doitua.**

Gastu orokorretarako geldikina aurrekontuari aplikatzeko dauden hornitzaileen datuekin eta ordaintzeko dauden diru-sarreraren itzulketekin doitzen da, eta horrek magnitude honen egoeraren ikuspegi errealagoa eskaintzen digu. Magnitude honek toki erakundearen epe laburreko benetako likidezian berri ematen digu.

#### III-C.2 AURREZKI GARBIA.





Aurrezki garbiak erakusten digu zein den erakundearen zorpetze ahalmena. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du ahalmenik epe luzerako mailegu eragiketa berriei aurre egiteko. Aurrezki garbia positiboa izanez gero, erakundeak epe luzerako mailegu eragiketa berriei aurre egiteko zer ahalmen duen jakingo dugu, bai eta eragiketa horiek zein zenbatekorekin eta baldintzarekin hitzar ditzakeen ere. Dena dela, magnitude honek erakundearen zorpetze ahalmenari buruzko informazio zehatzagoa ematea nahi badugu, foru arauak ezarritakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa doitu egin beharko litzakete, aparteko diru-sarrerak eta errepikatzen ez direnak kenduz.

### **III-C.3 FINANTZA ERAKUNDEEKIN EGINDAKO ZORRA.**

Zor bizia erakundearen finantza kaudimena ebaluatzeko adierazle garrantzitsua da. Kaudimen arazoak gehiegizko zorpetzeagatik sor daitezke, zeinek finantza karga handitzea dakarren. Horri gainerako gastu arrunta gehitzen bazaio, ezinezkoa egiten da arazoak erakundearen diru-sarrera arrunten bidez xurgatzea eta, beraz, aurrezki garbia negatiboa izango da.

### **III-C.4 AURREKONTU EGONKORTASUNA.**

Aurrekontu egonkortasunaren bidez, erakundearen finantzaketa ahalmena / beharra ezagutuko dugu. Egonkortasunak zeharka berekin dakar zorpetzeari mugak jartzea, urtero amortizatzen den zenbatekotik gora (KES 95en arabera kalkulaturak) handitu ez dadin. Erakundeak finantzaketa beharra badauka, hau da, bere gastu ez-finantzarioek diru-sarrera ez-finantzarioek baino gehiago egiten badute, erakundeak kanpoko finantzaketa beharko du (zorpetzea) gastuei aurre egiteko.

Erakundeak finantzaketa ahalmena badauka, hau da, bere gastu ez-finantzarioek diru-sarrera ez-finantzarioek baino gutxiago egiten badute, horixe izango da erakundeak zorpetzeari aurre egiteko duen marjina.

### **III-C.5 GASTU ARAUA.**

Gastu araua zera da: zerga arau bat, gastu konputagarria mugatzeko xedea duena. Hartara gastu hori, ekitaldi ekonomiko batetik bestera, ez da handituko aurrekontu ekitaldi bakoitzerako onartutako ehuneko bako bako gehiago. Hori horrela, aurrezki publikoa areagotzea lortuko da eta mugatu egingo da gastu gehikuntza, baldin eta horrekin batera ez badago ezarritako diru bilketa areagotzeko neurri osagarririk.

### **III-D. MAGNITUDEEN BILAKAERARI BURUZKO ONDORIOAK.**

Txosten honetako suposizioen arabera aztertutako gastuen eta diru-sarreraren egoeren kapituluaren proiektioetatik ondorioztatzen dugu aurrekontu aldaketa diruzaintza-geldikinak erabiliz finantzatzeko **ez duela sortzen egiturazko desorekarik erakundearen, baizik eta koiunturazkoa, eta ezarritako xedeak berriro beteko direla urtebete barru, ekonomia eta finantza planik prestatu behar izan gabe.**

## **V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK GASTU ARRUNTEAN IZANGO DUEN ERAGINA.**

Datozen ekitaldietarako dauzkagun proiektioak kontuan hartuta (III.C), aurrezki arrunt garbia positiboa izango dela uste dugu. Hortaz, aurrekontu aldaketa honen bidez finantzaturako den gastuaren (edo inbertsioaren) ondorioz etorkizunean sor daitezkeen gastu



arrunta erakundearen diru-sarrera arrunten bidez ordaindu ahalko da. Horrez gain, zorpetze ratioa aurrekontu ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpitik dagoenez, bi datuok batera hartuz, argi dago **etorkizuneko finantza iraunkortasuna ez dagoela arriskuan.**

Gainera, kontuan hartu behar da proposatutako aldaketek ez dutela gastu arrunta nabarmen handituko hurrengo ekitaldietan.

Txosten hau kreditu aldaketaren espedientearen zati izango da.

Udalbatzak egindako bilkuraren akta, txosten hau eta lagungarri den dokumentazioa Arabako Foru Aldundian toki erakundeekin loturikoetan eskumena duen sailera bidali behar dira, eta berak, 30 eguneko epean beharrezko den informazio osagarria eskatu ahalko du edo neurri osagarriak hartu, zeinen artean ekonomia eta finantza plana lantzeko eskaera egon daitekeen, toki erakundearen finantza iraunkortasunaren berme gisa.

Arespalditza.- IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA. Sin.- M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.”

Gai honen aldeko txostena egin zen 2019ko azaroaren 19ko Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Araubideko Kontuen eta Batzorde Iraunkor Informatibo Bereziaren bilkura arruntean.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du idatzitako moduan transkribatutako erabaki proposamena onartzea, eta jakinaren gainean geratu da aurrekontu egonkortasuna ez betetzeari buruzko 2019ko azaroaren 14ko kontu-hartzaitzaren txostenaz.

**10.- Azaroaren 25eko “Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna” adierazpen instituzionalerako proposamena.-** Ondoren, Udalbatzari jakinarazi zaio Udaleko Gobernu Taldeak “Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna” deritzon azaroaren 25eko Adierazpen Instituzionalaren proposamena bidali ziola Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordeari 2019ko azaroaren 19ko bilkuran.

Informazio Batzordearen bilkura horretan, epe bat eman zen adierazpen instituzionaleko proposamen horretan ekarpenak egiteko.

Adierazpenaren testua adostu ondoren, honela idatzita agertuko da:

**“AZAROAREN 25EKO ERAKUNDE ADIERAZPENA**  
**“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO**  
**EGUNA”**

***INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN ERREPARAZIORAKO TOKIKO EKINTZAK***

Azaroaren 25a (Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna) dela-eta, indarkeria mota honen egitura-izaera nabarmentzen dugu, eta gure konpromisoa agertu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeko. Era berean, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorrira, berresten dugu beharrezkoa dela ekintzak proposatzea esku-hartzearen alor guztietan: **prebentzioa, hautematea, arreta, babesa, koordinazioa eta justizia**, arreta berezia jarrita biktimei eta bizirik atera diren pertsonen **erreparazioa** ematean.

Biktimei erreparaziorako printzipioak berekin dakar biktimak eskubide-urraketa bizi aurreko egoerara lehengoratzeko beharrezkoak diren ekintzak martxan jartzea. Indarkeria matxistaren biktimen kasuan, xedetzat hartzen da biktimaren bizi-baldintzak funtsean hobetzea, urratutako eskubideengatik erreparazioa jasota eta eragindako minetik berrezarrita. Era berean,



ahalduntze-prozesua bultzatu behar da, indarkeria-egoerari aurre egiteko gaitasuna eta autonomia indartu dezaten.

Tokiko gobernuek biktimei arreta eskaintzeko alorrean aitortuta dugun erantzukizuna eta eskumena gure gain hartzen dugu, gure herri eta hirietan indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik hurbilen gauden erakundeak garelako. Politikarien eta teknikarien bultzada koordinatuarekin, tokiko erakundeen esku-hartzea funtsezkoa da erreparatzeko prozesuan, komunitateko bizitza berrezartzen laguntzeko eta biktimei erreparazio publiko eta soziala emateko, indarkeria matxistaren biktimen eta bertatik bizirik atera diren pertsonen inguru hurbilenean.

Horren ildotik, Berdinsareako (Berdintasunaren aldeko eta emakumeekiko indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea) udaletako berdintasun-teknikarien lana oinarrizkoa eta balio handikoa da, udaletan ekintzarako orientazio eta irizpide komunak eskaintzeko, batez ere, udal txikienetan. Hain zuzen, erreparazioari dagokionez, Indarkeria matxistaren biktimei erreparaziorako tokiko ekintzen gida bat prestatzeko lanean ari dira, tokiko erakundeek indarkeria matxistaren biktimek ordaina jasotzeko duten eskubidea praktikan jarri eta zehaztu ahal izan dezaten, udal eskumenaren esparruan.

**Horrela, Aiarako Udalak konpromiso politikoak betetzeko jardun nahi du, eta horrekin, Indarkeria Matxistaren aurkako Planaren bidez, indarkeria matxistaren mota guztiak desagerrarazi nahi ditu.**

- Foru Aldundiari eta Emakunde / Nafarroako Berdintasunerako Institutuari dei egiten zaie emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko aurrekontuko partidak handitzeko, berdintasun zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean indartzeko eta indarrean dagoen legeria berrikusteko konpromisoa hartzeko.
- Baliabideak jarriz, biztanleriak, eta bereziki emakumeek, dauden baliabideei buruzko informazioa izan dezaten, eta indarkeria matxistaren aurkako borrokarako zerbitzuen sarearen koordinazioa, talde-lana eta ezarpena sustatuz dagokion lurraldean (adin txikikoak eta biktimen seme-alabak barne).
- Neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako ahalduntze jarduerekin modu etengabe jarraitzea, gai hauetan: bikote-harremanak eta harreman afektibo-sexualak, maitasun erromantikoa, sexualitate libreak, autodefentsa feminista, etab.
- Nerabe eta gazteei zuzendutako prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerekin jarraitzea, hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko, indarkeria matxisten adierazpen anitzak desnaturalizatzeko, baieztoko adostasuna lantzeko eta, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-harremanak lantzeko.
- Indarkeria matxista jasan duten emakumeek beren alderdi guztiak konpontzeko duten eskubidea lantzeko jarduerekin jarraitzea, hala nola omenaldiak, zineforumak, ikusgarritasun-ekintzak, hala nola kale edo jardunaldien izenak, kalte-ordainak, akonpainamendu sozialeko ekintzak, etab.
- Biktimen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jarrita, euren beharrian eta eskariei entzunez eta arreta emanez.
- Langile espezializatu eta kualifikatuak edukita, erreparazioaren ikusmoldetik, ikuspegi feministarekin.
- Erreparaziorako eta ahalduntzeko esku-hartze prozesu guztietan, kudeaketa eta azkartasuna bermatzeko lan eginez.



- Tartean sartutako erakunde guztiekin koordinatuz, arreta eta erreparazioarako baliabideak egituratzeko, indarkeria matxistaren biktimen egoera erabat lehengoratuko dela eta urratutako eskubideak berrezarriko direla bermatzeko.
- Talde feministekin eta tokiko emakumeen elkarteekin modu estuan lankidetzan arituta, berdintasun-politikak eta ekintzak diseinatzeko, biktimei eta bizirik atera diren pertsoneri arreta eta erreparazioari dagokionez.
- Era berean, dei egiten diegu herritar guztiei, udalerrri guztietan A25a dela-eta antolatuko diren salaketa- eta aldarrikapen-ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.”

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak hitza hartu du, adierazteko ez dakigula indarkeriaren aurkako plan handi batek zer dakarren; indarkeria hori sustatzen duten erakundeak badaudela adierazi du. Gaineratu du gaur bertan, tratu txarren biktima den Barakaldoko emakume bat etxegabetu dezaketela. Bukatzeko, adierazi du zaintza partekatua, gurasoen lerrokadura... arretaz aztertu behar diren eta askotan emakumeen aurka erabiltzen diren kontzeptuak direla.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du bere taldeak, hizpide dugun adierazpena edo beste batzuk sinatzen dituenean, horrek dakarrena badakitela eta sinatzeak dakarren konpromisoa hartzen dutela.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da, eta aho batez erabaki du azaroaren 25eko “Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna” adierazpen instituzionalaren proposamena onartzea, eta horren berri ematea hedabideetan eta Aiarako herritarren artean.

**11.- “Procés” delakoari buruz Auzitegi Gorenak erabakitako epaiari buruz adostutako mozio bakarra.-** Ondoren, Udalbatzari jakinarazi zaio EH-BILDU udal taldeak mozio bat aurkeztu duela Auzitegi Gorenak “Procés” delakoari buruz emandako epaiari buruz.

Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Araubideko Kontuen eta Batzorde Iraunkorraren 2019ko bilkuran, bi mozioak puntu bakar batean bateratzea erabaki zen, testu adostu bat aurkeztuz.

EAJ-PNV taldeak “Procés” delakoari buruz aurkeztutako moziolari dagokionez, testu bakarra adostea erabaki da, osoko bilkuran aurkezteko.

EAJ-PNV eta EH-BILDU udal taldeek testua adostu ondoren, mozio bakarra honela idatzi da:

**“Kataluniako Independentismoaren buruzagien aurka Auzitegi Gorenak emandako epaia ikusita, Aiarako EAJ-PNV eta EH-BILDU udal taldeek honako hau adierazi dute:**

1. Aiarako Udalak adierazten du demokraziaren adierazpen baketsua, banakakoa edo kolektiboa ez dela delitua, ez eta herria manifestatzea ere. Hala, urriaren 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta legitimoa izan zen, eta Kataluniak eta Euskal Herriak beren etorkizuna erabakitzeke eskubidea dute.

2. Aiarako Udalak argi eta garbi adierazi du ezin direla justifikatu Auzitegi Gorenak eta Estatuaren botereek Kataluniako agintari eta gizarte-eragileei ezarritako kausa eta zigorrak.

3. Aiarako Udalak nabarmendu du Kataluniako Procésen aurkako auziak eta epaiak zuzenbide-estatua desitxuratzeko dutela, eta zalantzan jartzen dute espainiar demokraziaren nazioarteko homologazioa.



4. Aiarako Udalak azpimarratu du Espainiar Estatuaren indarkeriazko erantzunak eragin zuzena duela euskal herritarrengan. Erantzun horrek herrien borondatearen erabakia mugatzen du, modu demokratikoan eta baketsuan adierazia, eta arazo politikoa auzitegien indarrera mugatzen du, herriari kontsulta eginez elkarrizketaren eta hitzarmen bidezko konponbideak bilatu beharrean.

5. Aiarako Udalak Estatuko botereei eskatzen die preso politiko espetxeratuak berehala askatzeko eta erbesteratu politikoen aurkako arrazoiak bertan behera uzteko.

6. Aiarako Udalak elkartasuna adierazten die Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei eta haien senideei, baita Kataluniako herriari eta haren erakundeei ere, eta dei egiten die Aiarako herritarrei herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin bat egin dezaten, demokraziaren eta askatasunaren alde.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta EAJ-PNV eta EH-BILDU udal taldeetako kideen aldeko botoarekin eta AIARA BATUZ udal taldearen abstentzioarekin erabaki du Auzitegi Gorenak “Procés” delakoari buruz emandako epaiari buruzko mozio transkribatua onartzea.

## **12.- Berri ematea: 2019ko uztaileko, abuztuko eta iraileko kontaktetaren aktak, gastu eta sarreren balantzea, kartillen egoera eta kreditu aldaketak.-**

Ondoren, gai zerrendako puntu honetan aipatzen den dokumentazio ekonomikoaren berri eman zaio Udalbatzari, eta deialdiarekin batera bidali zaie zinegotziei.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

**13.- Alkatetza Dekretuen kontu ematea.-** Ondoren, Udalbatzari 2019/484 zenbakitik 2019/564 zenbakira, biak barne, bitarteko Alkatearen Dekretuen berri eman zaio. Hona hemen dekretuen helburua, laburbilduta:

“ALKATETZA DEKRETUA - 2019/484.- D.M.A.- Madarian baserria berreraikitzeke obra baimena emateko agiriak eskatuz.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/485.- Alday Ongintzako Fundazioa.- Arespalditzako 5. poligonoko 2444. lurzatia urbanizatzeko obra baimena emateko dokumentazio gehigarria eskatuz.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/486.- Aiarako Eskualdea.- Enviser edukiontziak erosteko diru-ekarpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/487.- Aiarako Eskualdea.- Diru-ekarpena gastu orokorrak eta bestelakoak, 4/2019.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/488.- Talleres Banoa SL- Jarduera legeztatzeke behar diren agiriak aurkezteke emandako epea luzatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/489.- J.V.M.O.- Lantenon eraikuntza osagarriko (zuzeko pergola) azken baimena emateke agiriak eskatuz.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/490.- Udal igerilekueketo aldagelen estalkia aldatzeko obra proiektua idatzeko zerbitzu txikiaren kontratua esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/491.- 2019an adingabeak musika eta dantza ikastaroetara joateko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/492.- Alday Fundazioa.- CRADen kudeaketagatiko ekarpen ekonomikoa, 2019ko iraila.





ALKATETZA DEKRETUA - 2019/493.- Euskaraz Koop. AEK elkartea. 21 Korrikarako dirulaguntza.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/494.- Elkarkidetza Pentsioak.- 2019ko urriko faktura onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/495.- Alderdi politikoari egindako ekarpen ekonomikoa (EH.BILDU), 2019ko iraila.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/496.- FJ.D.G. Turismoaren behin betiko bajaren onespena eta 2019ko TMIZ ordainagiriaren itzulketa.

ALKATETZA DEKRETUA.- 2019/497.- “Udal igerilekuetan espazio estalia jartzeko” obra kontratatzeke espediente eta pleguak onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/498.- J.N.M. Turismoaren behin betiko bajaren onespena eta 2019ko TMIZ ordainagiriaren itzulketa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/499.- FM.Z.P. Turismoaren behin betiko bajaren onespena eta 2019ko TMIZ ordainagiriaren itzulketa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/500.- JM.P.P Ibilgailu historiko dela eta, 2019ko TMIZ kuotaren hobaria ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/501.- Arespalditzako Osasun-zentroko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua idazteko zerbitzuaren kontratua esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/502.- Asfaltados y Construcciones Morga SL- Luiaondoko Barrena kaleko hiri-birsorkuntzako obra egiteko epea luzatzea eta aparkalekuak jartzea. 2

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/503.- EH-Bildu Udal Taldea.- Lantenoko Garabilla auzoan lurra betetzeko espedientearen informazioa eskuratzeko eskaera balioestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/504.- Salmantongo etxebizitzan landa-etxearen jarduera ezartzeko alde aurreko jakinarazpena ukatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/505.- Kili-kili Arespalditzako Elkartea -Udalaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/506.- Eskutxiko Ahotsak.- Emandako dirulaguntzaren % 90ko ekarpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/507.- Asasam.- Emandako dirulaguntzaren % 80ko ekarpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/508.- Amor Misericordioso ikastetxea.- Emandako dirulaguntzaren % 80ko ekarpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/509.- 5/2019 kreditu gehigarriaren espediente onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/510.- T.S.- Tramame-Remai espedientearen kontsultarako informazio publikorako sarbidea ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/511.- A.I.P.A.- Hirigintza arloko espediente kontsultatzeko informazio publikorako sarbidea ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/512.- Lantenon etxebizitza familiabakarrak eraikitzeke obrako hondakinak behar bezala kudeatzeko berme gisa jarritako fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/513.- Acciona Energy Developments. Herriko jabari publikoa okupatzeko tasa, 2019ko 3. hiru hilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/514.- Opellorako nekazaritzako pabiloia lehengo okupatzeko baimena ematea eta hondakinen fidantza itzultzeke dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/515.- F/2019/15 faktura erregistratuen kontabilitate-zerrenda onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/516.- K.P.M.- Hirigintza arloko espediente kontsultatzeko informazio publikorako sarbidea ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/517.- MI. C. A.- Opellorako nekazaritzako makinaren biltegi jarduera sailkatuaren alde aurreko jakinarazpena onestea.





- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/518.- J.C.S.I.- Ezgaitasun-maila iraungitzeagatik aparkatzeko txartela kentzea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/519.-Autobuses Cuadra- eskola-garraiorako baimena.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/520.- A.P.U.- Lantenon etxebizitza lehenengoz okupatzeko baimena emateko dokumentazioa eskatzen zaio.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/521.- Autocares Sobrón- eskola-garraiorako baimena.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/522.-J.C.G.- Arespalditzako Farmazian ortopedia sortzeko obra txikia egiteko luzapena ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/523.- M.B.A.A.- Aparkatzeko txartela berritzea, iraungi delako.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/524.- Urriko langileen nominen eta alkatearen hileko txostena onartzea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/525.- EDP COMERCIALIZADORA SAU- 2019ko 3. hiruhilekoko lurzorua okupazio-tasaren likidazioa.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/526.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.- Ferialera eta Arespalditzako Kontzeju Etxera sartzeko urbanizazio obretarako udal baimena ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/527.- Añesko Administrazio Batzarra.- Añesko “Carrascal” bidea asfaltatzeko udal baimena ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/528.- Udalkideentzako diru-ekarpena, 2019ko urria.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/529.- Alderdi politikoentzako diru-ekarpena, 2019ko urria.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/530.- Balgorza SAri esleitzea Arespalditzako osasun-zentroaren inguruan irisgarritasun-hobekuntzak egiteko obra-kontratu txikia.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/531.- Administrazio Batzarren parte hartzea 2019. urteko udal-aurrekontuan.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/532.- Nuria Lazkano Aretxabalari esleitzea Arespalditzako osasun-zentroaren ingururako irisgarritasuna hobetzeko obrako Obra Zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasun Koordinazioa zerbitzuko kontratu txikia.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/533.- Maroñoko Administrazio Batzarra.- Maroñon LED argiak ordezkatzeko obra txikia egiteko baimena ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/534.- U.M.A.- Luitaondon etxebizitza lehenengoz okupatzeko behin-behineko baimena ematea eta fidantza itzultzeko dokumentazioa eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/535.- Akats zuzenketa 2019/490 Dekretuan, Aiarako udal igerilekuetako aldagelen estalkia aldatzeko obra proiektua idazteko kontratu txikia esleitzeari buruzkoan.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/536.- J.A.A.ren ordainsari eta obretarako dirulaguntzen oinarriak onartzea. 2019.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/527.- J.M.J.- Aparkatzeko txartela berritzea, iraungi delako.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/538.- Aiara Valley SL- Ondare Zerbitzura (AFA) bidaltzeko dokumentazio gehigarria eskatuz.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/539.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia. 2019ko iraileko kuotaren ekarpena.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/540.- AFAREN ordainketa onartzea, PFEZAREN atxikipenari dagokiona - 3/2019.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/541.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.- Arespalditzako La Llana auzoko 2. zenbakian horma eraisteko eta ixteko obra-baimena ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/542.- M.I.C.A.- Hondakinak kudeatzeko aurkeztutako fidantza itzultzea, Opelloran nekazaritzako makinaren biltegia eraikitzeko obrarako.



- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/543.- REPSOL COMERCIALIZADORA DE ELECTRICIDAD Y GAS SLU - 2019ko 3. hiruhilekoaren likidazioa. Gasaren eta elektrizitatearen jabari publikoaren okupazio-tasa.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/544.- Pilbacken SL- Murgan industria-pabiloia berreraikitzeko udal baimena igortzeko dokumentazioa eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/545.- Orixe Comercial SL- Zuatzan bi bizitzako 2 etxetako lehenengoz okupatzeko baimena eta hondakinen kudeaketarako fidantza bueltatzeko dokumentazioa eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/546.- 2018-2019 euskara-ikastaroak finantzatzeko 2019ko laguntzen oinarriak eta deialdia onestea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/547.- URRUELA, SC - Eusko Jaurlaritza - Osasun Sailak egindako errekerimenduaren berri ematea, EBL (Gaztagintza) txostena egiteko dokumentazio gehigarria aurkezteko.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/548.- Luiaondoko Administrazio Batzarra.- Barrena kaleko lean farola jartzeko obra baimena ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/549.- Etxaurren ikastola. Bi urteko gelako ekipamendu psikopedagogikoaren eta gelako laguntzailearen nominen ordainketa, 2019ko urria.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/550.- B.S.G. Ibilgailuaren behin betiko bajagatik TMIZ 2019 ordainagiriaren zati bat itzultzea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/551.- B.S.G. Ziklomotorraren behin betiko baja emateagatik IVTM 2019 ordainagiriaren itzulketa.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/552.- F/2019/16 faktura erregistratuen kontabilitate-zerrenda onartzea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/553.- Alday Fundazioa.- CRAD kudeaketagatik ekarpen ekonomikoa, 2019ko urria.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/554.- Pilbacken SL- Murgan industria-pabiloia eraisteko obra baimena emateko dokumentazioa eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/555.- JEZ 2019 zergadunen errolda onartzea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/556.- Luiaondoko Padura kaleko 17ko jabeen erkidegoa.- Obretarako udal baimena ematea, etxebizitzetara sartzeko eskailerak konpontzeko.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/557.- J.J.C.E.- Beotegiko pabiloiko lanen hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/558- Udal erroldan baja ematea, inskripzioa okerra izateagatik: A.M.E.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/559 - Udal erroldan baja ematea, inskripzioa okerra izateagatik: A.G.B.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/560- Udal erroldan baja ematea, inskripzioa okerra izateagatik: R.A.D.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/561.- J.B.M.- Murgako etxebizitzako fatxada birgaitzeko obretarako udal baimena ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/562.-JM. U.P.- Menagarain eraikina eraisteko obrako hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/563.- M. A. G.A.- Ibilgailuen gaineko zergaren zati bat itzultzea, behin betiko baja emateagatik.
- ALKATETZA DEKRETUA - 2019/564.- Kreditu globaletik kreditua transferitzeko 2-2019 espedientea onartzea?.



Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza, 2019ko urriaren 14ko 2019/488 Dekretuari buruz galdetzeko. Dekretu hori Talleres Banoa SLri eskatzen zaion dokumentazioa aurkezteko luzapen bati buruzkoa da, eta jarduera hori non kokatzen den jakin nahi du.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), erantzun du Murgan dagoela.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak galdetu du ea oraindik ez duen jarduera-baimenik, eta ea normala den enpresa batek baimenik gabe 10 urtez jardutea, hain berandu iristea arraroa iruditzen zaiolako.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkateak erantzun du ez dela normala, baina erantzuteko espedientea ikusi beharko litzatekeela. Jarduera hastean baimena eskatzen dela adierazi du.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

### **PRESAZKO GAIA**

Aztergaien zerrendako gaiak aztertu ondoren, eta galde-eskeak aztertu aurretik, Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lehendakari jaunak Udalbatzari jakinarazi dio EH-BILDU udal taldeak, 2019ko azaroaren 19an, Euskararen Egunaren 2019ko abenduaren 3ko ospakizunari buruzko mozio bat aurkeztu duela, (EAJ-PNV udal taldearekin adostuta) eta Udalbatzari presazko arrazoiengatik aurkeztea proposatu duela.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du bozketa arruntean gai hau bilkuran jorratzea premiazkoa dela, abenduaren 3a baino lehen (Euskararen Eguna) ez baita beste osoko bilkurarik egingo.

**14.- Euskararen egunari buruzko mozioa.**- Udalbatzari Euskararen Egunari buruzko mozioaren berri eman zaio, eta honela dio:

#### **“2019KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA**

##### **Bide berriak, modu berriak**

##### **Ongi etorri etorkizunera!**

Jauzika dator euskara. Jauzika mendez mende. Jauzika egunez egun. Bihotzetik bihotzera jauzika. Eta, batez ere, ezpainez ezpain jauzika.

Bere eguna du gaur euskarak, Nazioarteko Eguna hain zuzen ere. Baina ongi asko dakigu euskal herritarrok eta euskal hiztunok gaur ospatzen duguna ez dela egunaren mugetara errenditzen. Jauzi egiten du euskarak egunaren mugez gaindi ere. Jauzi egiten du euskarak muga guztiez gaindi, gure ahoan bizi-bizi, gure belarrietan zernahitarako prest beti. Noranahiko euskara gurea, denona.

Zer genuke, bestela, gaur ospatzeko?

Bide luzea egina du euskarak, eta harekin batera euskal hiztunok eta euskaltzaleok, etorkizuna irabazteko etengabeko ahaleginean. Bide luzea du egina euskal gizarteak euskara plaza guztietara duintasun osoz eramateko. Eta asko lortu da. Jardunak berak erakutsi digu, erakusten digu egunero, ezinbestekoa dela bide horiek, gauzak egiteko moduak, etengabe eguneratzea, eraberritzea, irudimenez biziagotzea. Eta argi erakusten ari gara euskalgintzan ari garen guztiok prest gaudela, eta gogotsu, irakaspena barneratzeko eta praktikan mamitzeko.



Jarduerak adostu ditugu. Diagnostikoak hurbildu ditugu. Ekimenak josi ditugu elkarrekin. Elkarrekin ebaluatu dugu egindakoa. Elkarrekin hobetuko dugu hobetu beharrekoa.

Eta gizarteak erantzun sendoa eman du, onetsiz euskararen erabilera era iraunkor eta argian handiagotzeko estrategia eta molde berriak.

Badugu, bai, zer ospaturik aurtengo Euskararen Nazioarteko Egun honetan ere.

Ezagutzen ez genuen modu batean aktibatu zituen iazko gizarte-ariketa arrakastatsuak euskal hiztunak, neurri batekoak nahiz bestekoak. Aktibatu zituen, baita ere, herri aginteak eta askotariko gizarte-erakundeak, ikuspegi berri batetik. Eta, batez ere, strategiak eta diskurtsoak eraberritzeko joera eta prestasuna aktibatu zituen.

Aldekotasuna, horrela, konpromiso eragingarri eta praktiko bihurtzeko bidean jarri zen.

Badator, hurbileko ostertzean, ekimen haren jarraipena. Euskaraldia berraktibatuko dugu, berriz ere denon arteko adostasun eta lankidetzan, eta hurrengo urteko Euskararen Nazioarteko Egunak izango du, ezinbestez, toki propioa ariketa sozial erraldoi horren ingurumarian.

Ez da, baina, horretara mugatzen euskararen erabilera areagotzeko eginahala. Ezin inola ere horretara mugatu. Alorrez alor landu beharra dago erabileraren landarea, sendo haz dadin.

Ugari dira berariazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztien artean bada bat gizarte-bizitzaren gune-gunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motore nagusia baita.

Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarriaren garrantzia ez da gutariko inorentzat ezezaguna. Bai baitakigu ez dela hizkuntza normalizaziorik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik.

Sendoak dira, alor horretan ere, eragile nagusiak egiten ari diren urratsak. Eta horietan lehena, zalantzarik gabe, euskararen erabilera askotariko erakundeen izaeraren ezaugarrien artean txertatzea dago.

Bide berriak, modu berriak, arlo sozioekonomikoan ere.

Estrategia berriak, beraz. Konpromiso berriak. Konpromisoari erantzuteko molde berriak. Praktika berriak.

Azken batean, aldekatasun eraldatzailea da gure gizarteak, euskal hiztunok eta euskaltzaleok aktibatuz, bideratzen ari dena.

Bertan du euskarak etorkizuna.

Bide eta praktika berrietatik datorren etorkizuna.

Ongi etorri etorkizunera!

- 1.- Erakundeak euskara erabiltzea, bere jakinarazpen eta gainerako erakunde, hornitzaile zein elkarteekiko harremanetan.
- 2.- Euskararen erabilera sustatzen duten hainbat tresna sustatzea, hala nola softwarea eta oinarritzko aplikazioak euskaraz, astialdirako IKT produktuak, .eus domeinua eta euskararen erabilera interneten.
- 3.-Euskararen erabilera eta presentzia bermatzea erabiltzen ditugun komunikabide guztietan.
- 4.- Kirolaren euskalduntze-bidean lan egitea, federazioarekin eta tokiko klubekin elkarlanean.
- 5.- Gazteentzako euskarazko aisialdi-zerbitzuak sustatu eta zabaltzea.
- 6.- Familia-eremuetan euskararen erabilera eta transmisioa sustatzea.
- 7.- Migratzaileentzako laguntza-ildoak aktibatzea, euskara ikasteko eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera izan dezaten.
- 8.- Enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak aktibatzea, euskara laneko eta zerbitzuetako hizkuntza izan dadin.
- 9.- Jarduera arau-emailea garatzea, enpresetan euskara erabiltzeko planak indarrean jartzeko.



10.- Eremu guztietako eragileekin erabakiak bilatzea, euskararen normalizazioa bultzatzeko Jana har dezaten.

11.- Herriko gizarte eragile eta euskalgintzarekin batera elkarlanari eustea”

Iratxe Parro Uzquianok (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak hitza hartu du eta adierazi du aldeko botoa emango duela, baina jaso berri duela; beraz, ez du irakurtzeko astirik izan, baina gero egingo du

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du bozketa arruntean mozio transkribatua onartzea, egin den moduan.

### **15.- Galde-eskeak.**

**Iratxe Parro Uzquiano (AIARA-BATUZ) zinegotzi andreak** eskaera edo galdera hauek egin ditu:

- **Galdetu du ea Zuatzako Administrazio Batzarrarekin hitz egin den Zuatzako Plan Partzialari eta Urbanizazio Proiektuari buruz.**

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak ezetz erantzun du, teknikariak Batzordera joan arte zain zeudela.

**José Antonio Gorbea Alonso (EH-BILDU) zinegotzi jaunak** adierazpen hauek egin ditu:

- **EH-BILDU udal-taldeak aditzera eman nahi du zergatik ez zuen inork parte hartu 2019ko urriaren 25ean egindako ezohiko bilkuran.**

Adierazi duenez, bilkura egiteko aukeratutako egunak eta orduak, larritasunagatik, ez zuten egutegiak antolatzea ahalbidetu; eta, nahiz eta jakin ezohiko bilkurak 48 ordu lehenago deitu daitezkeela, espero dute hurrengoetan udaleko gainerako talde politikoekin adostea.

Gaineratu du, gainera, ez duela ulertzen zergatik deitu behar izan zen ezohiko bilkura bat gaia jorrazteko, ia aste eta erdi lehenago bilkura arrunta izan zelako. Gainera, Hirigintza Batzordera eraman beharko zela gaineratuko aukerarik hoberena zein den eztabaidatzeko. Gobernu taldearen gehiengoa izan arren, aniztasuna eta Aiara Batuz eta EH-Bildu bezalako taldeak errespetatu beharko liratekeela adierazi du.

Arespalditzako Osasun-zentroko Irisgarritasun obra txikiaren historikoa egin du. Hau da:

**“ARESPALDITZAKO OSASUN-ZENTROKO IRISGARRITASUN TXIKIKO OBRAREN HISTORIKOA**

2020/11/18

**OBRA ETA ZERBITZUEN BATZORDEA** Obra txikietarako deialdiaren 2. puntua, gobernu taldearen proposamena, Arespalditzako Kontsultategiko aparkalekua berrantolatzea.





2012/02/19an Obra eta Zerbitzuen Batzordeak onartutako akta irakurtzea.

2019/05/24

ALHAO, 60 zk. esp. 2050 Arespalditzako osasun-zentroko irisgarritasuna hobetzeko obrarako dirulaguntza ematea.

Aurkeztutako aurrekontua 34.981,59 €

Diruz lagun daitekeen aurrekontua: 25.676,32 €

Emandako dirulaguntza: 19083,58 €

2019/09/30

Irteeren Erregistro zk. 944. Arespalditzako kontsultategiaren obra luzatzeko eskaera AFari.

2019/10/15

Irteeren Erregistroa, zk. 1031-1032-1033. Arespalditzako kontsultategirako irisgarritasun-lanen kontratuaren lizitazioan parte hartzeko, Construcciones Izoria, Construcciones Menoyo Gochi eta Balgorza enpresei gonbidapen-gutuna bidaltzea.

2019/10/21

Sarrera-erregistro zk. 3716-3717-3718 Eraikuntzen idazkiak

Izoria, Construcciones Menoyo Gochi eta Balgorza, Arespalditzako osasun-zentroko irisgarritasun-obraren lizitazioan parte hartzeko gonbidapenari uko eginez.

2019/10/24

Sarrera-erregistroa zk. 3755. Diruz lagundutako obraren luzapena ematen duen AFaren idazkia.

2019/10/25

Ezohiko osoko bilkura.

Arespalditzako osasun-zentrorako irisgarritasun obra egiteko enkantearen proiektua eta baldintzen plegua onestea.

2019/10/25

Irteeren Erregistro zk. 1093-1094-1095. Arespalditzako osasun-zentroko irisgarritasun lanak esleitzeko kontratuaren lizitaziorako Construcciones Izoria, Construcciones, Menoyo Gotxi eta Balgorza enpresei gonbit berria helarazten dien idazkia.

Seguru asko Construcciones Izoriari ez zaio iritsiko, helbidea okerra delako.

2019/10/28

Sarrera-erregistro zk. 3801-3802. Construcciones Menoyo Gotchi eta Balgorza lizitatuzaileek eskaintza ekonomikoa aurkeztu dute. Construcciones Izoria enpresak ez du aurkeztu, ziurrenik ez duelako gonbita jaso.

2019/10/31

Irteeren Erregistro zk. 1117 Jakinarazpena Balgorzala enpresari, Arespalditzako osasun-zentroko irisgarritasun-obra esleitu zaiola jakinarazteko.

(Zer preziotan)

2019/10/31

Irteera-erregistro zk. 1118 Construcciones Menoyo Gotxi enpresari jakinaraztea Arespalditzako osasun-zentroko irisgarritasun obra Balgorza enpresari esleitu zaiola.

**GARRANTZITSUA: AURKEZTUTAKO PROIEKTUA 2019KO IRAILEAN SINATU ZEN, ETA HANDIK SARTU DA UDALETXEAN; BERAZ, EZ DA AGERTZEN UDALAREN DOKUMENTAZIOAREN SARRERA-ERREGISTROAN”.**

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du Arespalditzako Osasun-zentroaren irisgarritasun-obrarako dirulaguntza eskatzen denean memoria bat egiten dela, eta hori egin ostean egiten dela proiektua, eta orduan atzematen direla egin beharreko aldaketak, memorian sartu gabe zeudenak. José Antonio Gorbea zinegotzi jaunak Izoria





enpresaren helbide okerrari buruz adierazi duen akatsari dagokionez, esan du erregistro zenbakia duenez, hori egiaztatuko dela.

- **Adierazi du, azken hilabeteetan hainbat kreditu gehigarri bideratzen ari direnez, 2018ko likidazioaren gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin likidoarekin finantzatuta, galdera hauek egiten dituela idatziz erantzuteko:**
  - 1.- Zenbateko diruzaintza-geldikina dago erabilgarri gaur egun?
  - 2.- Zenbateko diruzaintza-geldikina erabili da guztira 2019an kreditu gehigarriak onartzeko?
  - 3.- Zenbatekoa da alkatetzak erabili dezakeen diruzaintza-geldikinaren zenbatekoa, horretarako ezarritako % 5eko legezko muga erabiliz?

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du informazio hori guztia batzordekideek dutela, kreditu gehigarriko espediente bat izapidetzen den bakoitzean kalkulatzeko baita.

José Antonio Gorbea Alonso (EH-BILDU) zinegotzi jaunak adierazi du Arespalditzako Osasun-zentrorako irisgarritasun-obrarako kreditu gehigarria bi aldiz erabili dela.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), adierazi du hori okerra dela, behin bakarrik erabili delako kreditu gehigarria, eta obra finantzatuko duen beste zenbatekoa emandako dirulaguntzari dagokiona delako. Egindako galderari idatziz erantzungo zaiela adierazi du.

- **Murgako industrialdeari dagokionez, honako hau esan du:**

“Joan den astean, arrazoi pertsonalengatik, Aiala industrialdean (Murga) izan nintzen, hegoaldean. Harrituta nago enpresa asko daudelako.

Bestalde, triste da industrialde horren utzikeria-egoera egiaztatzea, asfaltatuak dituzten kaleak apurtuta, lorezaintzaren utzikeria, garbitasun eza, arreta falta, eta erabat abandonatuta dagoela eta mantentze lanik ez duela adierazten duen irudia proiektatzea.

Era berean, Zorroza Gestión SL enpresak harritu egin ninduen, aire zabalean utzitako hondakin piloak, lixibatuak, usainak, arratoiak eta abar dituelako eta baita kamioi eta edukiontzi herdoilduz beteta dagoelako, horrek dakarren arriskuarekin.

Nire galdera hau da: nork kudeatzen du industrialdea? Arrazoizkoa da utzikeria eta irudi txarra enpresa berriak ezartzeko? Aiararako lanpostuak sortzeko aukera izango litzateke. Utzikeria ala ezjakintasuna da?

Bestalde, Zorroza Gestión SL enpresaren egoerari eta jarduerari buruzko udal-arkitektoaren txostena nahiko nuke eta ingurumeneko teknikariaren txostena nahiko nuke hondakin horiek legezkoak diren jakiteko, eta lixibatuak, arratoiak... eragiten duten kutsadurari buruz”.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du industrialdea udalaren eskumena dela eta Zorroza enpresak ez duela bere egoera arautua. Hala ere, Udalak errekerimendu asko egin ditu ildo horretatik, eta dagoeneko zigor ekonomiko garrantzitsua ezarri zaio enpresa horri.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du guztiak ez direla berdin “birrintzen” eta planeta keinu txikiekin defendatzen dela.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV), adierazi du izapidetzen ari den jardueraren atzealdeari dagokionez legezketasuna berrezartzeko espedientea, aldi baterako baino ez zenez, hainbat errekerimendu egin direla, baita Ingurumen Sailari eta Osalani ere, langileak arriskuan jar daitezkeelako. Gaineratu du espedientearen hurbileko jarraipena egiten ari dela.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) ondoko enprekin hitz egin den galdetu du eta alkate jaunak baietz erantzun du.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) esan du horrela ezin dela lanposturik ekarri Aiarara. Zorua eta errepidea denen artean konpon zitezkeela adierazi du. Gaineratu du lurrean filtrazioak gertatzen ari direla eta, enpresa itxi behar bada, Udalak horretarako gaitasuna duela, eta, nahiz eta haien kontra ezer ez izan, ondo mantendu behar dela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV), adierazi du kontuan duela industrialdearen egoera, eta argudio horietako askorekin bat datorrela, baina industrialdeak arazo garrantzitsuak ditu, adibidez, saneamendua ez dagoela banatuta. Adierazi du Foru Planaren dirulaguntza eskatu nahi izan zela, baina adierazi zutela ez zirela industrialdeak finantzatzen. Era berean, adierazi du Zorroza enpresaren jarduera ingurumen-arazo bat dela, eta horregatik eman dituztela eman dituen urrats guztiak, eta hasieran aldi baterako zen atzealdeko jarduera arautzeko ahalegina egin dutela.

Zinegotzi andrea, **Karmele Población Martínez (EH-BILDU)**, honako ohar, eskari edo galdera hauek egiten ditu:

- Harrigarria iruditzen zaio bere taldeko José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak Murga poligonoari eta Zorroza enpresari buruzko kontu hau Udalbatzaren Osoko bilkurara ekarri behar izana, eta horren berri horrela izatea, Hirigintza Batzordea uztaitetik bildu ez denean.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du aspaldikoa dela gai hori, eta espedientearen kudeaketa normala egin dela. Zerbait berria dagoenean jakinaraziko dela adierazi du.

- **Galdetu du ea Udalak ordaintzen duen “Patxita etxeko” argia.**

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV) erantzun du oraindik ez zaiola titulartasunik eman Osakidetzari, eta horregatik egiten diogula aurre garbiketari, eta zalantza egiten dugu energia elektrikoaren hornidurari ere bai, eta Osakidetzak dirukopuru bat ordaintzen digu, osasun-txartelen arabera.

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak galdetu du ea horrek gastuari aurre egiten dioen.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du ez dakiela zehatz-mehatz.

- **Gaztelekuaren espedientearen egoerari buruz galdetu du, badirudi gazte batzuek dagoeneko galdetu dutela ea irekita ote zegoen, eta gai hori ez dela luzatu behar.**



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Batzordean esan zela hauteskunde aurreko unea zela-eta ez zela egokia familiekin harremanetan jartzea.

- Galdetu du **sistema informatiko** bat izateko aukerari buruz galdetu den, ea akten grabazioa hasten denean parte hartzeak euskarara itzultzeko aukera ematen duen.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du aurrekontua eskatu dela, baina oraindik ez digutela bidali.

- **Hizkuntza-paisaiari** dagokionez, galdetu du ea Udalak plangintzarik duen udalerriko seinaleak euskaraz jartzeko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak ezetz erantzun du, baina esan du duela urte batzuk mapa toponimiko bat egin zela auzoen izenak adosteko asmoz. Gaineratu du aurrekontu txikia dugula, baina urtero kopuru txiki bat ematen dela udal kale-izendegirako eta seinalizaziorako, kontzeju batek edo bik seinaleak berritu ditzaten.

Karmele Población Martínez ( EH-BILDU) zinegotzi andreak dio euskarazko izen batzuk ez direla ondo idazten.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak, adierazi du haiek laguntza teknikoa ematen dutela eta kontzejuak seinalizazioa aldatu eta azken onarpena eman dutela.

- **Banda zabalari** dagokionez, adierazi du Udalak galdetu dezakeela noraino dagoen garatuta hedapenaren plangintza.

Zinegotzi andrea, **Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU)**, honako ohar, eskari edo galdera hauek egiten ditu:

- **CRADeko langileen hitzarmen kolektiboari** dagokionez, adierazi du ez dakiela ondo azaldu den, langileei aplikatzen zaien hitzarmen kolektiboari buruz galdetu du; izan ere, haiekin hitzarmena dugunez, interesa agertu behar dugu.

Montse Angulo Solloa (EAJ-PNV) zinegotzi andreak erantzun du Araban hitzarmen kolektiborik ez dagoenez, Estatu mailakoa aplikatzen dela.

- Galdetu du zein egoeratan dagoen Informazio Batzordeak irekiak izateko aukera, Osoko bilkuran hitz egin zelako, eta Udal Erregelamendu Organikoa, abenduan zer bait egingo zela esan zelako.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du dagoeneko bi eredu ikusi direla, baina ondo aztertu beharreko gaia dela, batzordeetan noizbait kontuzko gaiak jorratzen baitituzte, datuak babesteko arautegiak babestuta; beraz, ezin dute Udalbatzako kideen eremutik atera, derrigor izan behar duten konfidentziasun-betebeharrarekin, eta, beraz, jendea atera egin beharko litzateke.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak ulertzen du, beraz, horretan lanean ari direla eta proposamen bat dagoenean helaraziko zaiela. Gaineratu du



# Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

lehenbailehen egin behar dela esaten duenean, ez duela datorren hilabetean esan nahi, alde batera ez uztea baizik.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du oso ondo aztertu behar dela, dagokion gaiaren tratamendu irekia ezinezkoa den kasu horiek arautzeko.

Susana Martín Benavides (EAJ-PNV) zinegotzi andreak adierazi du gai garrantzitsua dela, eta ondo baloratu eta egin behar dela, eta zirriborroa prest dagoenean helaraziko zaiela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak adierazi du gai horri buruz galdetu zenean esan zela zerbait proposatu nahi zutela abendurako, eta ez zela asko atzeratu behar, zirriborroa besterik ez bazen ere.

Eta jorrazeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bilera amaitutzat eman du zortzi eta laurdenak direnean. Eta landutakoa jasota gera dadin, akta hau eman da, Arespalditzan, bi mila eta hemeretziko azaroaren hogeita batean. Nik, idazkaria naizen honek, guztiaren fede eman dut.

O. E.:  
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.